**KIROLA: AUTO PILOTU ONENAK GORLAKO IGOERAN ZAPATUAN /11**

# Goienkaria



EGUBAKOITZA • 2003ko ekainaren 13a • IV. urtea • 114. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

**BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA**




**Goienka2a**
**Euskal Herriko txistulari onenak Oñatin elkartuko dira**

**GAIZKA ARANGUREN / NABARRALDE**
*"Inoiz izan bada euskaldun guztion egitura politiko bat, hori Nafarroa izan da"* /9

**DEBAGOIENA**
**Gerran desagertu eta fusilatutakoak omendu dituzte Arrasaten /6**

**ASTEKO GAIA: UDALBATZEN OSAKETA /2-3**

# Joaten diren eta datozen ibarreko alkateen iritziak

Maiatzaren 25eko hauteskundeetan aukeratu genituen ordezkariek bihar, ekainak 14, hartuko dute euren kargua. Izan ere, udalbatza berriak osatzeko ekitaldi ofizialak egingo dituzte.

Ibarrean egon diren eta egongo diren alkate guztiekin egin dugu berba, euren asmoen berri ematеko. Plataformen legez kanporatzea dela-eta, etorkizunean gerta daitekeenaren gaineko argibideak ere eman dizkigute. Ibarreko 109 zinegotzik hartuko dute kargua bederatzi Debagoieneko bederatzi herrietako udalbatza berrietan.

## Gipuzkoako Batzar Nagusiak osatu dituzte Oñatin

Oñatiko Unibertsitatean egin zuten atzo Gipuzkoako Batzar Nagusien Bilkura Eratzailea.

Hauteskundeetan aukeratutako batzarkide guztiak zeuden deituta ekitaldira, eta bertan, boto bidez, Leire Ereño presidentea, presidenteordeak eta idazkariak aukeratu zituzten. AUBko hautetsiek ez zuten botaketan parte hartu, sarrera debekatu egin zieten-eta. /4



IRATI AGIRREAZALDEGI

**OÑATI**

### Zaharrendako lau apartamentu inauguratu dituzte

Eguaztenean inauguratu zituzten Bidebarrietako babespeko lau apartamentu, eta hantxe biziko diren bost lagunei giltzak eman zizkieten. Han egon ziren, besteak beste, Anjel Iturbe alkatea eta Maximo Goikoetxea Gizartekintzako zuzendaria. Apartamentuok hirugarren adinekoendako dira, bere kontura bizi izateko gauza izan eta etxebizitzarik ez dutenendako. /7

**BERGARA**

### Jaien errepikapena gaur eta bihar, tabernarien eskutik

Herriko tabernarien elkarte sortu berriak antolatu du jaien errepikapena. Berkotari elkartea du izena eta herriko 23 taberna daude bere baitan. Udalak eskaintzen duen kultura egitarauaren osagarri izan nahi du tabernariek antolatu dutena. Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, izango dira ekitaldiak; besteak beste, Sen eta Sex Museum taldeen emanaldiak izango dira. /7

**ARRASATE**

### Aramaio erreka garbitzeko lanak egiten hasiko dira

Orain arte Deba ibaia garbitzeko lanak egiten ibili dira Arrasaten. Hain zuzen ere, orain arte ibaira botatzen genituen ur zikinak batzeko kolektoreak eraiki dituzte. Orain gauza bera egin gura dute herria zeharkatzen duen Aramaio errekarekin. 22 hilabetean bukatu beharko dute Aramaiora doazen zikinkeria guztiak batzeko kolektorea. Geroago, Epelen araztegia eraikiko dute. /7

**IDIOMASTER**
**Ikastaro trinkoak uztailean**
**Hizkuntzak: ingelesa eta frantsesa**
Zatoz eta informa zaitez.
Otalora 29, behea • ARRASATE
Tel./Faxa: 943 79 07 84 • idiomaster@euskalnet.net




DEBAGOIENA/4-6 • HERRIZ HERRI/7 • IRITZIA/8 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/20-21 • SAILKATUAK/18 • BERRI-ZAKUA/19 • ZERBITZUAK/20 • DENBORA-PASA/21

# Bihar eratuko d

- 109 zinegotzik karguaren zina egingo dute, baina denek ez dute jardungo
- Debagoieneko zazpi alkate berriek euren asmoak azaldu dizkigute
- Plataformek parte hartu ahal izateko formulak lantzen ari dira alderdiak

LEIRE KORTABARRIA

Bihar, ekainak 14, osatuko dira udalbatza berriak. Horrez gain, atzo, eguena, egin zen Gipuzkoako Batzar Nagusien eraketa ekitaldia, eta Oñatin egin zen ekitaldi hori. Gipuzkoako batzarkide guztiak geurean egon ziren, hortaz.

**ZAZPI ALKATE BERRI**

Udal guztiak, Leintz Gatzagakoa izan ezik, EAJ-EA koalizioaren esku geratuko dira. Horrek esan nahi du udal gehienak kolorez aldatu direla. Baina kolorez aldatu ez direnen kasuan ere, alkate batzuek kargua utzi dute. Horrekin guztiarekin, zazpi alkate berri izango ditugu ibarrean.

Alkate izan diren eta izango direnen ikuspuntua jaso nahi izan dugu: bai euren gestioari dagokionez, bai eta plataformen legez kanporatzeak ekarri duen giro politikoari dagokionez ere.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA



gerora begira

eskaintza AKADEMIKOA

goi eskola politeknikoa

ARRASATEko campusa Telf: 943 79 47 00
- 1. Zikloko Ikasketak
  Industri Mekanikan Injinerutza Teknikoa
  Sistemen Informatikan Injinerutza Teknikoa
  Industri Elektronikan Injinerutza Teknikoa
  Industri Diseinuan Injinerutza Teknikoa
  Telekomunikazioetan Injinerutza Teknikoa. Telematikako Espezialitatean.
  Telekomunikazioetan Injinerutza Teknikoa. Telematikako Espezialitatean.
- 2. Zikloko Ikasketak
  Industri Antolakuntzan Injinerutza
  Industri Elektronikan eta Automatikan Injinerutza
  Informatika Injinerutza
  Industri Injinerutza

GOIERRIko campusa Telf: 943 88 00 62
Industri Mekanikan Injinerutza Teknikoa

LEA-ARTIBAIko campusa Telf: 94 616 90 02
Industri Mekanikan Injinerutza Teknikoa Polimerotan

enpresa zientzien fakultatea

OÑATIko campusa Telf: 943 71 80 09
- 1. Zikloko Ikasketak
  Gestio Informatikako Injinerutza Teknikoa
  Zuzendari Idazkaritza
- 1. eta 2. Zikloko Ikasketak
  Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura:
  - Bide kurrikularra: Finantza Zuzendaritza
  - Bide kurrikularra: Merkatal Zuzendaritza
  - Bide kurrikularra: Erakundeen Kudeaketa

ELGOIBARko campusa Telf: 943 71 41 32
Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura

BIDASOAko campusa Telf: 943 63 91 29
Enpresa Zientziatan Diplomatura
- Bide Kurrikularra: Enpresa Logistika eta Garraioa
- Bide Kurrikularra: Nazioarteko Merkataritza

humanitate eta hezkuntza zientzien fakultatea

ESKORIATZAko campusa Telf: 943 71 41 57
- 1. Zikloko Ikasketak
  Irakasle Ikasketak:
  - Haur Hezkuntza
  - Hezkuntza Berezia
  - Atzerriko Hezkuntza
  - Heziketa Fisikoa
- 2. Zikloko Ikasketak
  Psikopedagogian Lizentziatura
- 1. eta 2. Zikloko Ikasketak
  Humanitateak-Enpresa Lizentziatura

INSKRIPZIO EPEA: ekainak 20ra arte

www.mondragon.edu

PLATAFORMAK ETA ARALAR

## Herri plataformek parte hartzeko aukerak eta Aralarren erabakia

**Plataformek, herri gehienetan, ez dute baieztatu mobilizaziorik egingo duten ala ez; Arrasaten, hori bai, itxialdi zaratatsua egingo dute bihar, eta osoko bilkuran parte hartzen saiatuko dira. Bergarako plataformak ere osoko bilkurara azalduko dela baieztatu du. Gauza bera esan du Aramaioko taldeak.**

**Herri batzuetan, batzorde informatiboen aukerari heltzea proposatu da: hau da, plataformek talde moduan izango lukete parte hartzeko aukera, eta euren iritzia entzungo luke udalbatzak, baina ez lukete errepresentazio ofizialik izango udalean.**

**Bestalde, Aralar taldeak erabaki du, euren ustez, botoen arabera herri plataformenak izan beharko liratekeen zinegotziek, akta sinatu bai, baina ez direla plenoetara azalduko edo zinegotzi hori erabiliko. Hortaz, Bergaran, Aretxabaletan eta Arrasaten Aralarko zinegotzi banak ez dute lan horretan jardungo, nahiz eta ardura, legez, onartu. Eta, ez dira udalbatzen osaketan izango.**

INPUGNAZIOAK

## Udalbatza osatuta geratu ondoren, hogei eguneko epea zabalduko dute

**Hogei eguneko epe bat geratuko da zabalik bihartik aurrera, inpugnazioak egiteko.**

**Neurri formal horrek ez du aukerarik uzten, ordea, edozein taldek udalbatzaren eraketaren aurka protesta ofiziala egin ahal izateko, edo inork emaitza horiek desegokitzat joz gero inpugnazioa egiteko. Neurri hori gordetzen da bateraezintasun kasuren bat dagoenerako: adibidez, pertsona bat ezin daiteke udal langile eta zinegotzi izan, aldi berean. Orduan, kasu hori ematen bada, inpugnazioa egin daiteke.**

ZINEGOTZIAK

## Zinegotzi gazteena, Arrasaten; nagusiena, berriz, Leintz Gatzagan

**Guztira, 109 zinegotzik zin egingo dute euren kargu berria bihar. Joan ziren udal hauteskundeetan, 1999an, baino bi gutxiago izango dira, Gatzagako biztanle kopurua jaitsi egin zelako. Alkatea bera zinegotzia da, eta eratutako udalbatzak aukeratzen du hura alkate. Zinegotzi gazteena Ander Rodríguez arrasatearra da (EB-IU), 20 urtekoa; nagusiena, aldiz, Juan Mari Makazaga gatzagarra, 70 urtekoa (zerrenda independenteko kidea).**

**Zin egiteak ez du esan nahi zinegotzi horrek udal bizitzan parte hartuko duenik. Bergarako Aralar taldeak, adibidez, esan du zinegotzi batek ez duela parte hartuko, euren ustez, eserleku hori herri plataformari dagokiolako.**

HAINBAT UDAL ERAKUNDE

## Batzorde informatiboen bidez herriko taldeek udalean parte har dezakete

**Bihar, ekainak 14, eratuko dira Debagoieneko udalbatza berri guztiak. Egun horretan, zinegotzi guztiek euren kargua onartuko dute modu ofizialean, dagokien udal aktetan sinatuz. Herri bakoitzean, hauteskundeetan aukeratutako zinegotzi guztiek osatuko dute udal osoko bilkura deritzona; hori hilean behin batzartzen da, eta udal organo nagusia da. Bere bilerak publikoak dira eta nahi duen oro joan daiteke haiek entzutera.**

**Hori ez da, hala ere, udal erakunde bakarra; gobernu batzordea da, praktikan, udal funtzionamendua bermatzen duena. Hor, udalbatzaren gehiengo batek hartu behar du parte. Zinegotziek bakarrik esku har dezakete bileretan.**

**Beste organo bat batzorde informatiboak dira. Interesa dutenek parte har dezakete hemen, entzule eta iritzi emaile moduan, eta udalak kontuan har ditzake euren iradokizunak. Hau izan daiteke bide bat hauteskundeetan hautatuak izan ez diren taldeek udal bizitzan parte har dezaten.**

## SEGITZEN DUTENAK



**VICTORIANO GALLASTEGI**
BERGARA / EAJ-EA

**Bergararra da eta 62 urte ditu. Laugarren aldiz izango da alkate.**

Gure lorpen handiena, azken agintaldian, izan da Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmena, Eskola Profesionala lekuz aldatzeko eta oraingo lekuan etxebizitza sozialak egiteko. Datorren agintaldian, kirol baliabideak zaindu nahi ditugu, eta zaharkitua geratu den ekipamendua berritu. Aurten, horren lehen faseari ekingo diogu.



**PATXI BASAURI**
ELGETA / EAJ-EA

**Elgetarra, 58 urte ditu eta 27 daramatza alkate lanetan.**

Egitasmo asko ditugu datorren agintaldirako; adibidez, Torrealdeko etxebizitzak egin, Arrasaterako bidea oinezkoendako utzi, eguneko zentroa egiten hasi, Kafe antzokia bukatu, mendi museoa eraiki… Kiroldegiko frontoian ere teilatua berritu nahi dugu. Udal politikari dagokionez, plataformak parte hartu ahal izango duen oraindik ikusteke dago.

# ira udal berriak

## DATOZENAK



**INAZIO LAKUNTZA**
ARRASATE / EAJ-EA

**Arrasatearra da eta 52 urte ditu. MONEko zuzendaria da.**

Alkate moduan, lehen eginbeharra lan talde on bat osatzea izango da, hainbat zerrendatako jendez eratua, eta Arrasate noraino eraman nahi dugun hausnartzea; hortik aurrera, proiektuak jarriko ditugu abian. Herri plataformari dagokionez, gertu nago berba egiteko; baina legez kanpoko zinegotzirik ezin dut onartu. Hori ez dago nire.



**ANDONI GARTZIA**
OÑATI / EAJ-EA

**Oñati, 41 urte. Garaiako gerente eta GBBko ibarreko arduraduna da.**

Nire lehen eginbeharra izango da Oñatiko Plan Estrategikoa eta Finantza Plana egitea, inbertsiotarako zenbat diru dugun eta zein muga ditugun jakiteko. Arau Subsidiarioak ere burutu behar ditu udalbatza berriak. Beste kontu batzuetara jota, herri plataformek parte hartu ahal izango dute, nik uste, formula berrien bidez, baina legea errespetatuz.



**ARRITXU OLIDEN**
ARETXABALETA / EAJ-EA

**Aretxabaletarra, 36 urte ditu. Komertziala da lanbidez.**

Nire nahia da jendearen partehartzea ziurtatzea, arlo guztietan, eta guztion artean, Aretxabaleta berpiztea: etxebizitzak egitea, herria garbi edukitzea… baina, batez ere, kultura zentro bat sortzea. Udalbatza eratzeari dagokionez, balitekе istiluak egotea. Plataformak ere parte har dezan gura dugu, baina hori bai, legearen mugen barne.



**J. KARLOS BENGOA**
ESKORIATZA / EA-EAJ

**Hiru agintalditan zinegotzi izan da. Erabateko gehiengoz irabazi zuen.**

Aurreko udalbatzak abiarazitako proiektu handi batzuk aurrera eramango ditugu; batez ere, hirigintzakoak, eta egitasmo berri batzuk jarriko ditugu martxan. Ahalik eta talde eta iritzi gehienekin lan egiten saiatuko gara. Lege mugak errespetatuko ditugu, kanpoan geratu direnendako beste parte hartze bide batzuk jorratuta.



**JOSE ANGEL ZABALO**
ANTZUOLA / EAJ-EA

**Antzuolarra, 52 urte. Erabateko gehiengoa lortu zuten.**

Gustura hartuko dut herriarengatik lan egitera datorren edonor. Izan ere, horixe, Antzuolaren alde lan egitea, da nire asmo bakarra; beste lorpen eta helburu guztiak euren pisutik etorriko dira. Plataformako kideen iritziak ere ondo hartuko ditut. Nik, ordea, ezin diet legitimitatea eman; kendu dienak bakarrik eman diezaieke.



**MERTXE MONDRAGON**
ARAMAIO / EAJ-EA

**Zinegotzi eta, irailetik aurrera, ordezko zinegotzi izana da.**

Proiektu asko ditut: batik bat, herriko auzoen egoera hobetu eta guztiak bateratu, babestutako etxebizitzak egin… hitz batean esanda, Aramaio biziberritzea eta, beste herri txiki batzuei gertatu zaien bezala, hiltzen ez uztea. Udalbatza berriari eta plataformari dagokionez, ikusi egin behar… hori bai, ni prest nago eurekin berba egiteko, printzipioz.



**JOSE RAMON PÉREZ**
GATZAGA / INDEPEND.

**Arrasatearra da eta 41 urte ditu. Lehen aldia du politikan.**

Gure helburuak dira orain arteko udal taldearen proiektu garrantzitsu batzuk bukatzea: batik bat, dagoeneko abian dagoen Nekazari Garapen Plana aurrera eraman eta burutzea. Hainbat eraikin berritzen hasiak ziren, eta horiek ere amaitu ingo ditugu. Gatz museoa ere ia bukatuta dago, baina azken ukituak emango dizkiogu agintaldi berrian.

## DOAZENAK



**XABIER ZUBIZARRETA**
ARRASATE / EH

**58 urte ditu, eta dio "gehiegi" eman dituela alkate lanetan.**

Oso asmo maltzurrak ditut: autodeterminazio eskubidea, presoak etxera… Nire lorpen nagusia da, astoa eta herensugea ezkonduz, herrian Batasuna mantentzea; egiteke, AHT geldittu, tranbia egin, baso eder bat erosi, errekan bainatu… Bihartik aurrerakoak kezkatzen nau: putxerazo honen aurrean, herri borondatea legezkotasun propioz gauzatzea lortu behar dugu.



**ANGEL ITURBE**
OÑATI / EAJ-EA

**Azken 12 urteotan izan da alkate; orain, atsedenaldi luzea hartuko du.**

Lorpenen artean, Bidebarrietako etxeak, erretiratuendako etxeak, San Martin egoitza handitzea… baina batez ere, hainbati lagundu ahal izana, azpimarratuko ditut. Penaz geratu naiz, ordea, plazako ingurunea ezin urbanizatu izateagatik; baita, Arau Subsidiarioak ez bukatzea, babes ofizialeko etxebizitza gehiago eraiki ez izana, aparkalekuak…



**ANGEL BERGARETXE**
ARETXABALETA / EH

**41 urte ditu, eta azken lau urteak eman ditu alkate lanetan.**

Aurrerantzean, lantegiko arduretara bueltatuko naiz. Zaila da politika behin betiko uztea, baina orain, atsedenaldi bat behar dut. Oroitzapenetatik, onena da jendearekin harremana, ezagutzen ez nituen herritarrak inguratu izana; txarrena, kultura azpiegitura bideratu ahal ez izana, eta, bestetik, udaletik gu botatzeko izan duten modua.



**EDORTA ZUBIZARRETA**
ESKORIATZA / EH

**Lau urte egin ditu alkate lanetan; beste lau egin zituen zinegotzi.**

Urte hauetako gauzarik pozgarriena izan da lan talde ona sortu izana; baita, udaletxea berritzea. Neuk ez dut politikan segituko, eta nire betiko lanpostua egun osoz egitera bueltatuko naiz, baina nire taldeak, herri plataformak, etenaldi baten ondoren, aurrera jarraituko du, eta proposatuko du herriaren borondatea errespeta dadila.



**MIREIA UNAMUNO**
ANTZUOLA / EH

**1995-99 agintaldian zinegotzi izan zen; 1999tik hona, alkate.**

Politikan parte hartzen jarraituko nuke, baina utziko ote didaten, hori da kontua. Alkate izan naizen epetik, nabarmenduko nuke proiektuak guztion artean atera ditugula aurrera. Pena dut, bestalde, kultura etxearen egoitzaren gestioa atzeratu egin dela, aluminosiak jota geratu zelako. Eskerrak, behintzat, ezer larririk ez zela gertatu.



**IÑAKI NAFARRATE**
ARAMAIO / EAJ-EA

**Aramaioarra, 51 urte. Arabako Batzar Nagusietarako aukeratu dute.**

Zaila da oroitzapen on bakar bat aukeratzea. Aramaioko auzoetako azpiegiturak hobetu ditugu, euskararen erabilpena areagotzen lagundu dugu, kultura etxea eraiki dugu… Horiekin pozik nago, bai. Gehiago ere egitea gustatu izango litzaidakeen, baina, dirua dela, beste arrazoi batzuk direla, ezin izan dugu nahi genuen guztia egin.



**JOSERRA AGIRREURRETA**
GATZAGA / INDEPEND.

**43 urte ditu, eta azken hiru eta erdiak eman ditu alkate lanetan.**

Ez dut inoiz nire burua politikaren munduaren barne bezala kontsideratu, nahiz eta kanpotik hala ikusi nauten; edozelan ere, guztiz utziko dut lan hau. Hiru urte eta erdi hauetan egindako lanetik, Indiano etxearen zaharberritzearen bermatzea nabarmenduko nuke. Herriaren peatonalizazioa egitea gustatu izango litzaidakeen, era berean.

# Oñatin aukeratu zituzten atzo Gipuzkoako Batzar Nagusietako mahaikideak

*EAJ-EA koalizioko Leire Ereño izango da Gipuzkoako Batzar Nagusietako mahaiko presidentea legealdi berrian*

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Atzo, eguena, Gipuzkoako Batzar Nagusiak eratu zituzten Oñatiko Unibertsitatean. Batzarkide guztiak zeuden deituta ekitaldira; Ertzaintzak, ordea, sarrera galarazi zien AuBko ordezkariei, eta horren ondorioz tentsio uneak bizi izan ziren unibertsitate kanpoan.**

Gipuzkoako Batzar Nagusiak eratu zituzten atzo, eguena, Oñatiko Sancti Spiritus Unibertsitatean. Orain arte batzar eratzailea beti Donostian egin izan badute ere, hasi berri den agintaldian Gobernua eta Batzar Nagusiak bereizteko asmoz, batzarra Diputazioko eraikinetik beste leku batzuetara ateratzea erabaki dute.

Goizeko hamaiketan hasi zen ekitaldia, eta batzarkide guztiak aretoan sartuta, adineko mahaia osatu zuten. Gero, bozketa bidez, Leire Ereño —hautagai bakarra— aukeratu zuten Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidente. Era berean, presidenteordeak eta idazkariak ere hautatu zituzten batzarrean: EAJ-EAko Jose Mari Oruesagasti izendatu zuten lehenengo presidenteorde, eta Rafaela Romero bigarren presidenteorde, 1995-1999 agintaldian Arrasateko Udaleko PSE-EEko zinegotzi izandakoa.

Hala ere, Rafaela Romero ez da ibarreko ordezkari bakarra Gipuzkoako Batzar Nagusietan; izan ere, EAJ-EA koalizioko Amaia Larrañaga, Amaia Altube, Agustin Ugarte, Koldo Pereira eta Iñaki Galdos, Aralarko Jose Etxeberria eta PSE-EEko Paco García ere maiatzaren 25ean hautatu zituzten batzarkide izateko, eta atzoko ekitaldian egin zuten karguaren zina.

Debagoieneko batzarkideek adierazi zuten Batzar Nagusietan ibarraren alde egingo dutela lan: "Hutsune historikoa egon da ibarrean Gipuzkoako agintaritzaren partetik, baina poliki-poliki hutsunea zuzentzen joan da. Debagoienak Gipuzkoako Foru Aldunditik aspaldian jaso ditu laguntzak", esan zuen Galdosek.

Aralarko Jose Etxeberriak zera adierazi zuen: "Programan ingurumenaren gaineko hainbat gai aipatu genituen. Debagoienak hainbat gabezia ditu, eta ibarrean aukeratuak izan garen guztiok horiei irtenbidea bilatzen ahaleginduko gara".

PSE-EEko Paco Garcíak, berriz, zera esan zuen: "Alderdikideek aukeratu nindutenean bazekiten Debagoiena eta Arrasate defendatu behar nituela Batzar Nagusietan, eta hori izango da, hain zuzen, nire lana; herriaren eta ibarraren alde egingo dut lan".



I.A.
**Debagoienak hainbat ordezkari izango ditu Gipuzkoako Batzar Nagusietan, argazkian ikus dezakezuen bezala.**

*Iñaki Galdos: "Hemen hutsune historikoa egon da Gipuzkoako agintaritzaren partetik"*

*Jose Etxeberria: "Debagoienak dituen gabeziei irtenbideak bilatzen saiatuko gara"*

*Paco García: "Debagoiena eta Arrasate defendatuko ditut Batzar Nagusietan"*

Mahaia eratu ostean atsedenaldia egin zuten batzarkide guztiek, eta gero, Bateraezintasunen batzordeko kideak izendatzeko bilkura egin zuten.

Esan bezala, batzar eratzailea unibertsitate barruan egin zuten, baina AuBko kideei ez zieten bertan sartzeko baimenik eman, eta batzarrak iraun zuen bitartean AuBk kale bilkura egin zuen kanpoko aldean. Hauteskundeetan gipuzkoarrei iruzur egin dietela salatu zuten AuBko ordezkariek: "Hauteskunde antidemokratikoenak izan dira maiatzaren 25ekoak. Sufragio unibertsalik ez da izan, hautatzeko eta hautatuak izateko eskubiderik ez dugu izan eta hemen bigarren *putxerazo* larria gertatu da. Batzar Nagusietako kargua hartzea ez da izan hauteskundeen emaitzen arabera-koa, ez dute 64.000 gipuzkoarren borondate legitimoa ordezkatzen".

Atzo eratu zituzten, hortaz, Gipuzkoako Batzar Nagusiak.



**NEURRI BEREZIAK hartu zituen Ertzaintzak atzoko ekitaldiaren aurrean, eta unibertsitate ingurua zaindu zuen. Hala, ertzainak AuBk deitutako kale bilkuran zeudenak grabatzen hasi zirenean tentsio uneak bizi izan ziren, baina ez zen ezer larririk gertatu. Unibertsitate barruan batzar eratzailea egiten zebiltzan bitartean, kanpoan kontzentratuta segitu zuten AuBko kideek.**

ETEO

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

ESKAINITAKO TITULUAK

IDAZKARITZA
ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
APLIKAZIO INFORMATIKOEN GARAPENA
NAZIOARTEKO MERKATARITZA
MERKATARITZA KUDEAKETA ETA MARKETINA

Irekita izen aurrez emateko epea

BISITATU GURE WEB ORRIA!!

Larraña auzoa, 16 • 20560 OÑATI (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 71 80 09 Fax: 943 71 81 62

informacion@eteo.mondragon.edu • www.eteo.mondragon.edu




EDU MENDIBIL
Etxerat-eko kideek eta Barandallarekiko elkartasuna erakutsi duten hainbat debagoiendarrek prentsaurrekoa eskaini zuten zapatuan.

# Barandallari eta 'Fiti'-ri elkartasuna adierazi zioten zapatuan Bergaran

*Prentsaurrekoa eta manifestazioa egin zituzten hainbat debagoiendarrek*

ENEKO AZKARATE

***Barandalla etxera!, Fiti etxera! Bizirik nahi ditugu* lelopean, manifestazioa egin zuten hainbat debagoiendarrek joan den zapatuan Bergaran. Horrez gainera, prentsaurrekoa eskaini zuten bi presoon egoera salatzeko.**

Bi preso horiek eta, oro har, "Frantziako eta Espainiako kartzeletan dauden gainerako presoen egoeragatik kezkatuta eta larrituta" agertu ziren Etxerat-eko kideak eta bi presoekiko elkartasuna adierazi duten ibarreko beste hainbat pertsona ezagun. "Espainiako kartzeletan osasun eskubiderik ez dagoen erakusle garbiak Bautista Barandalla eta Joseba Goikoetxea *Fiti* dira", adierazi zuten prentsaurrekoan.

Bi preso horiek gaixotasun larriak dituzte, eta kartzelan ez dute euren egoerak eskatzen duen zaintza eta arreta berezirik jasotzen. Epaileek, bestalde, eragozpenak jarri dizkiete kartzelatik atera eta ospitalean zain ditzaten. Goikoetxea eguaztenean utzi zuten aske, minbizia sendatzeko. Lugoko ospitalean jaso zuen berria presoak, ebaketa egin ostean. "Preso gaixoek jasaten duten babesik eza" salatu zuen hark. Hesteetatik gaixo dagoen Bautista Barandallari, ostera, epaileek galarazi egin zioten askatasuna.

Etxerat-ek egoera larri horiek salatu nahi izan ditu joan den zapatuan Bergarako kaleetan egin zituen prentsaurreko eta ondorengo manifestazioaren bitartez.

## BAILARAN LABUR

### XVIII. mendeko egurrezko tornu bat ipiniko dute Arrasateko industria erakusketan

Saiolan eraikinean dagoen *Debagoiena Giza Abentura: Tradiziotik Berrikuntzara* industria erakusketarekin lotutako hainbat berritasun aurkeztu dituzte gaur Arrasaten. Hain justu, aurrerantzean museo horretan ikusgai izango den objektu zaharrena, XVIII. mendeko egurrezko tornu zaharberritu bat, erakutsi dute; bestalde, erakusketaren gida eta bisitaldi gidatuen eskaintza eta koaderno didaktikoak ere aurkeztu dituzte. Horrez gainera, Melina López artista mondragoetarrak egindako eskultura bat ere erakutsi dute. /E.A.



### Ormaetxeak liburu berria aurkeztu du

Jose Maria Ormaetxeak hilaren 5ean, eguenean, aurkeztu zuen bere azken liburua, Gasteizen: *Didáctica de una experiencia empresarial: El cooperativismo en Mondragón*. Arrasateko kooperatiba mugimenduaren bultzatzaile nagusietakoa izan zenaren eta, besteak beste, gaur egun Mondragon Unibertsitatea denaren hazia izan zen Arrasateko Eskola Profesionalaren sortzailearen iritziz, kooperatibismoaren espirituak bizirik dirau eta globalizazioak ez ditu sorrerako balioak zapuztu, "gizartean oso errotuta daudelako". /E.A.







publidenak.
Era guztietako publizitate-artikuluen fabrikazioa, markaketa eta banaketa.
Edozein kopuru. Epe laburrak. Aurrekontuak konpromiso barik. Erakusketa zabala.

- Enpresetara bisitak
- Enpresa-opariak
- Promozioak
- Publizitate-artikuluak
- Gabonetarako otarrak
- Artikulu pertsonalizatuak
- Diseinua. Arte grafikoak.
- Fotokopiak zuri-beltzean eta koloreetan.
- Estanpazioak kamisetetan eta txapeletan.
- Koadernatzeak eta plastifikatzeak.
- Trofeoak. Txapela bordatuak.
- Era guztietako errotuluak.
- Seinaleak, plaka ofizialak.
- Pankartak eta banderak.
- Laser bidezko markaketak, serigrafia, transferrak, termograbaketak eta bordatuak

HELBIDE BERRIA:
ARRASATE PASEALEKUA 8
ARRASATE
TEL.: 943 77 06 09 (4 linea)
FAXA: 943 71 23 77
POSTA-E: publidenak@euskalnet.net

Servimasa
Sukaldeko altzariendako akzesorio eta osagarriak
Tel.: 943 76 19 95
Faxa: 943 76 07 49
BERGARA

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2003ko ekainaren 13a

# Gerran fusilatu eta desagertutakoak omendu dituzte, monolito bat jarrita

*Gerran fusilatu edo desagerrarazi zituzten 105 debagoiendarren izenak ipini dituzte Arrasateko Laubide plazan*

K. ERRASTI/L. KORTABARRIA

**"Hunkigarria, gogoangarria, baina, batez ere, merezitakoa". Horrela deskribatu zuten herritarrek eta Debagoieneko alkateek joan den domekan egindako ekitaldia. Hain zuzen ere, Espainiako gerran fusilatutako debagoiendar guztiak omendu zituzten.**

Ikusgai dago, bisitatu gura duten guztiondako, Arrasateko Laubide plazako monolitoa. Esanahi historiko eta sentimental handiko eskultura da; izan ere, bertan irakur ditzakegu Espainiako gerran fusilatutako eta desagertutako debagoiendarren izenak; haien senide eta lagunak batzen dituen batzordeak baieztatu ahal izan dituen 105ak, behinik behin.

Ekitaldi gehiago ere egin zituzten Arrasaten elkartutakoek, erakusteko Debagoienak ez dituela orain dela 66 urte hildako eta desagertutakoak ahaztu. Antolatzaileek eta Debagoieneko alkateek esan zutenez, ordea, tristurarako baino gehiago, "pozik egoteko eguna" egin gura izan zuten.

Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña bertsolarien eskutik hasi zen ekitaldia, 12:00etan. Segidan, batutako alkateek –Bergarakoak eta Antzuolakoak ezin izan zuten joan– berba batzuk esan zituzten.

Ekitaldi hunkigarrienetako bat izan zen gerran hildako Lorentzo Aranbarri mondragoetarraren alargunari, Karmen Lamaraini, lore sorta eman zioten unea. Lore gehiago, era berean, monolitoa bera inauguratu zenean, haren ingurua lorez apaindu zuten-eta ekitaldira azaldutako senideek.

Juan Ramon Garaik, antolatzaileen izenean, honakoa esan zuen: "Gerran fusilatu zituztenak eta desagertuta jarraitzen dutenak omendu ditugu. Eta eskerrak eman gura dizkiet euren informazioa eta laguntza eskaini diguten herritar guztiei".

*"Hunkigarria" eta "merezitakoa" izan zen ekitaldia, inguratutakoen iritziz*

*Udalek, musika taldeek eta, batez ere, herritar askok hartu zuten parte omenaldian*




KEPA ERRASTI

**Bergarako eta Antzuolako alkateak izan ezik, ibarreko gainerako guztiak hartu zuten parte omenaldi ekitaldian.**



K.E.

**Lorentzo Aranbarriren alargun Karmen Lamaraini, oparia.**



K.E.

**Jende mordoa batu zen omenaldi ekitaldian.**



K.E.

**Arrasateko Laubide plazan jarri dute monolitoa.**



K.E.

**Monolitoen aurrean aurreskua dantzatzen.**

## Debagoienean fusilatu eta desagertuen zerrenda

**ARRASATE**
- JOSE MARKIEGI OLAZABAL
- JOSE JOAQUIN ARIN OIARZABAL
- LEONARDO GURIDI ARRAZOLA
- PAULA MUGIKA ARREGI
- VICENTE IRAZOLA URRUTIA
- FLORENCIA OLAZAGOITIA CECIAGA
- DIONISIO URIBESALGO OTADUI
- MANUEL MADINABEITIA ZUBIZARRETA
- AGUSTÍN ARAMBURU ZABALETA
- GREGORIO SAMPEDRO AZPIAZU
- MARIA AREITIO ARANA
- RAIMUNDO GALDOS AZKARRETAZABAL
- VENANCIO GASTAÑARES VILLAR
- MIGEL GASTAÑARES VILLAR
- JOSEBA CECIAGA ARIZAGA
- VICENTE MADINA IRIZAR
- LORENZO ARAMBARRI GOÑI
- JUAN BENGOA AGIRIANO
- JOSE ANTONIO URIONABARRENETXEA ISASMENDI
- NORBERTO MONDRAGÓN HERRASTI
- LUIS BALANZATEGI ZULUETA
- PEDRO AGIRIANO ARANA
- FELIX ELORZA OLALDE
- ISIDORO ITURBE ELKOROBARRUTIA
- MARCELINO UGALDE LANDA
- JOSE MARIA URCELAI ZARRAOA
- RUFINO ORMAETXEA IBARRONDO
- ISMAEL DIEZ FERNÁNDEZ
- FRANCISCO AZKONAGA ARANA
- JESUS URANGA URRUTIA
- ROMAN BEREZIBAR ORMAZABAL
- FRANCISCA OIANGUREN IRIBECAMPOS
- ROGELIO GARCIA LUMBRERAS
- FELIPE GARCIA LUMBRERAS
- FRANCISCO BIDABURU ARAMBURUZABALA
- CESARIO AGINAGALDE LEZETA
- MANUEL ELORZA LUPIANO
- SABIN ETXABE GURUZETA
- FAUSTINO GARITANO ASKAZIBAR
- JUAN JOSE RODRÍGUEZ RODRÍGUEZ
- VICTORIANO BALERDI URIONABARRENETXEA
- ANASTASIO GARCIA LUMBRERAS.
- JOSEBA SANPEDRO MENDIA
- FELIX SAGASTA ALTUNA
- LUIS ARRIETA ETXEBARRIA
- SECUNDINO VITORIA GOITIA
- ANDRES FERNANDEZ BILBAO
- CANDIDO GARAI URIBESALGO

**BERGARA**
- RICARDO ZANGITU
- TOMAS IÑARRA
- ILDEFONSO IÑARRA
- RUFINO AKIZU ALBISTEGI
- JOSE GARAIKOETXEA
- ANTONIO GONZALEZ
- ALFONSO EZPELETA
- JESUS GANTXEGI BARRUTIA
- FEDERICO MUGIKA
- ANDRES ALBERDI
- GREGORIO LARRAÑAGA
- PEDRO SAN MIGUEL
- JUAN NAZABAL ARANA

**OÑATI**
- FRANCISCO ARRIZABALAGA
- JOSE KORTABARRIA BAREÑO
- PACIANO ITUARTE CORRES
- FELIX UGARTE BERASATEGI
- GUILLERMO MARTINEZ
- ANTONIO GALDOS URIARTE
- PEDRO BENGOA ARANGUREN
- RAMON AIASTUI ORMAZABAL
- MARCELINO AZKARRETA AIASTUI
- CEFERINO UGARTE AIASTUI
- JUAN URZELAI KORTABARRIA
- VALENTIN ARKAUZ URZELAI
- FRUCTUOSO ABERASTURI LAZKANOITURBURU
- PEDRO AGIRREZABAL MADINAZKOITIA
- MANUEL GUTIERREZ SALABERRIA
- MARCOS ALDAZABAL ETXEBESTE
- ANGEL ITURMENDI BUSTO
- VICENTE OREGI EGAÑA
- BENITO AIASTUI INZA
- JOSE LETE UGARTE

**ARETXABALETA**
- ISIDORO GARCIA ETXABE
- FELIX ALBERDI CEBERIO
- VICTORIANO AKIZU IZURRATEGI
- SATURNINO SAUQUILLO ETXEBARRIA
- PEDRO JOSE AXPE
- FELIX ALBERDI GOROSTIZA
- JESUS PEÑA ETXEBARRIA
- EUGENIO ZALDIBIA LAPEÑA
- PATXI OLABE

**ESKORIATZA**
- EMETERIA ARAMBURUZABALA BEITIA
- APOLINAR URIBE URTEAGA
- TOMAS ZUBIZARRETA
- FRANCISCO VITERI
- TEODORO ERRAZTI IZURRATEGI
- JORGE ITURRICASTILLO ARANZABAL
- LUZIANO ARKAUZ ITURBE

**ANTZUOLA**
- JUAN LARREA LACRUZ

**ARAMAIO**
- JOSE MARIA AZKARRAGA MOZO

**ELGETA**
- PEDRO TELLERIA ASKASIBAR
- FRANCISCA LAMARAIN ARANZABAL
- CANUTO UGALDE
- VICENTE GARMENDIA
- VICENTE GARAI
- HILARIO ARANZETA
- PEDRO ANSOATEGI

**LEINTZ GATZAGA**
- ANSELMO ELGOIBAR GOROSTIZA
- LEON BEITIA ERRASTI
- HILARIO ARANA BEITIA
- JOSE SALTERAIN
- VALENTIN LAMARAIN ELGOIBAR
- MANUEL ETXABE

ANTZUOLA

## Umeen Dantzari Eguna ospatuko dute Antzuolan etzi, domeka

Oinarin dantza taldeak Umeen Dantzari Eguna antolatu du. Inguruko herrietako eta herriko bertako 160 bat neska-mutikok hartuko du parte egun horretan.

10:30ean hasiko dituzte eguneko ekitaldiak: ordu horretan, kanpotik datozenei harrera egingo diete; 11:15ean, herri osoa kalejiran zeharkatuko dute; eta 12:30ean, dantza saioa egingo dute plazan talde guztiek. Arratsaldean, berriz, 17:30ean egingo dute dantza saioa Herriko Plazan; talde bakoitzak dantza berezi bana egingo du. /A.I.

ARAMAIO

## Maider Unda borrokalaria, lesionatuta, baina aurrera begira

Maider Unda borroka librEko Espainiako txapelduna lesionatuta dago. Lotailu gurutzatua apurtu du, eta meniskoa ere guztiz apurtuta dauka. Ebakuntza egin diote, eta orain bigarrenaren zain dago. Hala, aurrerantzean lan handia egin beharko du, errekuperazio luzea dauka-eta; urte osorako lana.

Edozelan ere, nahiz eta egoera gogorra izan, animoso dabil Maider Unda datorren denboraldiari begira. Adierazi digunez, Greziako Olinpiar Jokoetarako sailkatzen ahaleginduko da. /U.M.

ELGETA

## Azoka Nagusiko jaietan kaleak garbitzeko hiru langile behar dira

Elgetako Udalak Azoka Nagusiko jaietarako langileak behar ditu. Batetik, hiru lagun eskatu ditu kaleak garbitzeko. Horiek 275 euroko diru ordaina jasoko dute, eta lanpostu horrekiko interesa dutenek udaletxean eman beharko dute izena ekainaren 20a baino lehen.

Bestalde, Azoka Nagusiko egunean goizean postuak jartzeko eta arratsaldez kentzeko ere langileak behar dira, guztira sei lagun. Oraindik zehaztu barik dago horiek zenbat diru jasoko duten. /I.A.



A.I.

OÑATI

## Hirugarren adinekoendako babespeko lau apartamentu inauguratu ditu Udalak Bidebarrietan, eta bost lagun biziko dira etxebizitza horietan

Eguaztenean inauguratu zituzten Bidebarrietako babespeko lau apartamentuak, eta hantxe biziko direnei giltzak eman zizkieten. Han egon ziren, besteak beste, Anjel Iturbe alkatea eta Maximo Goikoetxea Gizartekintzako zuzendaria. Apartamentuok hirugarren adinekoendako dira, bere kontura bizi izateko gauza izan eta etxebizitzarik ez dutenendako. Kuota bat ordaindu beharko dute apartamentu horietan bizi direnek, baina argindarra, gasa eta komunitateko gastuak, esaterako, Udalak ordainduko dizkie. Etxebizitzak jende nagusiarendako izanik, hainbat segurtasun neurri dituzte: ke detektagailua, telealarma zerbitzua, suaren kontrako gortinak... Bost lagun biziko dira lau apartamentuotan: senar-emazteak eta hiru emakume alargun. /A.I.

BERGARA

# Tabernariek Pazkoen errepikapena antolatu dute asteburuarako

Herriko tabernarien elkarte sortu berriak antolatu du jaien errepikapena. Berkotari elkartea du izena eta herriko 23 taberna daude bere baitan. Tabernariek azaldu dutenez, euren asmoa ez da bakarrik jaiak errepikatzea: “Orokorrean aisialdia sendotzea eta osatzea baizik, eta, horretarako, urtean barrena hainbat kultura ekitaldi antolatzeko asmoa dugu. Oro har Udalak eskaintzen duen kultura egitarauaren osagarri izan nahi dugu”. Hori horrela, oraingo astebururako antolatu dituzten ekitaldiak abiapuntua direla gehitu dute: “Hortik aurrera gehiago etorriko dira; dagoeneko San Martzialetan ere pentsatzen dihardugu”.

**KONTZERTUAK PLAZAN**

Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, izango dira ekitaldiak; besteak beste, Sen eta Sex Museum taldeen emanaldia.

Horrekin batera, txosna jarriko dutela aurreratu dute, kontzertuek dirauten bitartean. /M.B.

**Egubakoitza, 13**
19:30-22:00: Poteo herrikoia, Elektrotuna taldeak lagunduta, San Martin plazatik abiatuta
23:00: Rock kontzertua Special gues eta Sen taldeekin San Martin plazan
Horrez gain, txosna jarriko dute San Martin plazan

**Zapatua, 14**
15:00: Mus Txapelketa San Martin plazan
23:00: Rock kontzertua Sex Museum eta Surfin kaos taldeekin San Martin plazan
Horrez gain, txosna jarriko dute San Martin plazan

ARRASATE

# Aramaio ibaia garbitzeko lanak egiten hasiko dira laster

Orain arte Deba ibaia garbitzeko lanak egiten ibili dira Arrasaten. Hain zuzen ere, orain arte ibaira botatzen genituen ur zikinak batzeko kolektoreak eraiki dituzte.

Orain, gauza bera egin gura dute herria zeharkatzen duen Aramaio errekarekin. Dagoeneko idatzita dago lan hori egiteko proiektua, eta jendaurrean ipini dute. Eta, behin burokrazia kontu guztiak gainditu eta gero, 22 hilabetean bukatu beharko dute Aramaiora doazen zikinkeria guztiak batzeko kolektorea.

Hala, urte gutxi barru Epelen araztegia eraikiko dute eta han garbituko dituzte ur zikinok. /U.M.



U.M.

Urte gutxi barru ibarreko ibaiak garbi-garbi ikusiko ditugu.

ARETXABALETA

## Eskolako eguna ospatuko du Kurtzebarrik bihar, zapatua

Urtero legez, bihar, zapatua, Kurtzebarriko irakasleek, ikasleek eta haien gurasoek eskolako eguna ospatuko dute. Horretarako, egitarau zabala gertatu dute. Hain zuzen ere, festa etxafuego jaurtiketarekin hasiko da, 10:30ean; gero, eguerdira bitartean, kirola izango da nagusi. Batzuek Aretxabaletako auzoetan zehar ibilaldia egingo dute, eta beste batzuek hainbat kirol txapelketatan hartuko dute parte; gosea egindakoan, berriz, bazkaria izango dute eta amaitzeko, dantza txapelketa mundiala. /A.L.

ESKORIATZA

## Txikirri-Txikirri IV. mendi ibilaldia egingo dute domekan

Domekan egingo dute Txikirri-Txikirri mendi ibilaldia Eskoriatzan. 40 kilometroko ibilaldia izango da. 07:00etan irtengo dira, eta Eskoriatza inguruko mendi tontorretatik egingo dute bueltatxoa: Mendiola, Kurtzebarri, Degurixa, Mugarriluze, Bentafria, Jarindo, Kurtzeta, Apotzaga eta Eskoriatza.

Bittor Arrieta eskoriatzarra hil zenean antolatu zuten lehenengo aldiz, 1997an, hari omenalditxoa egin guran. Geroztik, bi urtean behin egiten dute, eta gero eta jende gehiagok hartzen du parte. /M.A.

LEINTZ GATZAGA

## Alberto Altubek sendabelarren gaineko hitzaldia egingo du

Gaur, egubakoitza, Alberto Altube gatzagarrak sendabelarren gaineko hitzaldia egingo du Garro jauregiko lehenengo solairuan, 19:00etan. Hitzaldia Gatzagako Sorginak emakume taldeak antolatu du. Alberto Altube sendabelarretan aditua da, eta hainbat komunikabidetan sendabelarren gaineko aholkuak ematen ditu. Gatzagan egingo duen hitzaldian, inguruan dauden sendabelarren gainean jardungo du, batez ere. Beste egunen baten, gainera, ibilaldia egingo dute belarrak ezagutzeko. /A.G.

# Zabalik



MARIJO DEOGRACIAS

## Gurea da!

**Bihar eratuko dira udalbatzak. Madrilen dagoen egoera nahasia gurean ere bada. Botoak lortu dituen hautetsi askok ezingo dute ordezkaritzarik eskuratu, legez. Horrek bazterrak nahastuko ditu berriz ere eta famili askotan hankaz gora jarriko ditu harremanak. Baina, politikoen kalterako –edo mesederako izango da?–, Gipuzkoan beste edonora begira egongo gara.**

**Neuk Bizkaitik egingo dut hori, urte bi badirelako Bizkaian bizi naizela. Denbora horretan dozena bat partidu ikusi ditut San Mamesen; tartean derby bi. Ez da Athleticzale egin naizela. Hemengo lagunak saiatu dira, baina, iaz (eta aurreko urteetan) ez nuen egin eta aurten gutxiago! Katedralera bizkaitar batekin joan nintzen lehenengo aldian, Athletic-Zaragoza ikustera, Realaren bufanda jantzi nuen…**

**Vigon ez bada, azkeneko jardunaldian izango da; baina, dudarik ez izan hirugarrenez gurea izango dela liga. Eta, emozio gehiago emateko, Athleticek Real Madrili irabazteko zain geratu behar badugu ere…, gurea izango da. Imajinatzen duzue partidu horixe ikustera joatea Realaren elastikoa jantzita? Proposamena egin dut, baina bizkaitar lagunek 'txoratuta' nagoela esan didate. Hori eginez gero, Madrilen egurtu egingo nautela diote. Baliteke, baina garaipena bikoitza litzateke: pentsa! Reala txapeldun eta Madril liga barik, euskaldun talde batek partidua irabazi diolako eta beste batek liga bereganatuko duelako! Hori bai garaipen gozoa!**

# Gutunak

## Lurralde Zatiko Planaren gainean

Debagoieneko eskualdearendako proposatu den Lurralde Zatiko Planari alegazioak aurkezteko epea joan den apirilaren 30ean agortu da, aurrez erabakirikoa hilabetez luzatu eta gero. Planak bete du, honenbestez, bere eraginak jasoko ditugun herritarron eta gainerako agenteen esku-hartzeari dagokion atala eta aurrera doa. Tartean hauteskunde batzuk izan direla ere kontuan hartuta, honez gero, zozokeria bat izan beharko luke honako galdera hau egiteak: Ezagutzen al da LZP gure artean? Tamalez, galdera ez da, bada, hain ergela. Gustua baduzu egin ezazu, irakurle, aproba eta argi ikusiko duzu gure artean, gaur, edonor ikaratzeko beste izan beharko lukeen gehiengo batek ez dakiela zertaz ari zaren ere; sinplifika ezazu kontua, Urkuluko urtegiaren inguruan milatik gorako txalet doala esanaz eta zerbaiten zurrumurrua entzun dutela erantzungo dizuten apurrek ere, honetaz ezer garbirik ez dakitela aitortuko dizute.

Egoera, azaldu dudana izatea penagarria da. Izan ere, Lurralde Zatiko Plana garrantzi handiko dokumentua da eskualde batendako, bertako biztanleen bizitzako arlo askotan daukan eraginagatik. Bere egitekoa, funtsean, hauxe da: eskualde bateko lur guztiek zein erabilera izan behar duten erabakitzea. Horretarako, lehenengo, diagnosi bat egiten da eskualdeak bizi duen egoeraren gainean, hau da: inguru fisikoa nolakoa den, zenbat garen, zer bizimodu dugun, zer ikasketa, etab. Gero, hau kontuan izanda, eskualdeak (beraz, guk), aurrera begira, ze helburu izan behar dituen erabakitzen da. Azkenik, eskualdea (berriz diot, gu), helburu horiek betetzeko bidean jarriko luketen ekintza zehatzen proposamena egiten da.

Ni neu, guretako prestatu duten LZP ezagutuz noan neurrian, orduan eta arduratuago nauka bertan planteatzen den lurraren okupazio-ereduak, bere oinarrian, etorkizunerako ezer uzten ez duen ikuspegi suizida bat antzematen diot-eta. Hala ere, lerro hauetan azaldu nahi nuen ideia nagusia, plan honek aurrera aterea izateko daraman isilpeko bide lotsagarria salatzea da. Hor ikusten dut prozesu honen lehenengo gaitza, orotariko erakunde publikoen jardunean, esku artean polemika sor dezakeen gai bat darabiltenean, betik agertzen dena. Guri dagokigunean, alde batetik, planaren aurkezpena egiteko moduari darion kiratsa daukagu: Prozesuak martxan urteak daramatzan arren, nola plazaratu da plana? Gaia gizarteratu, hausnarketa bat egin eta interesatuon ekarpenak ganoraz prestatzeko astirik eman barik. Kasualitateak eraginik? Ez nuke hala esango. Bere idazketan erabili den idazkera anbiguo eta ulergaitza ere, aurrez salaturikoaren adibide ederra da.

Erakunde publikoak mila modutan zuritzen saiatzen diren jokabide honek "elkarrizketa", "gardentasuna", "herriaren hitza" eta antzerako hitzak zentzurik gabe uzten ditu eta herritarroi bizitzarekiko jarrera pasibo bat izatea beste aukerarik ez digu uzten. Eta hori, epe luzera, denondako izango da kaltegarri. Egon seguru.

ASIER ZUBIA ORTUETA
Debagoiena

## Nork zioen zer?

Lerro hauek argia ikusiko duten egun berean amaituko zaizkie Aretxabaletako EH-koei Udala zuzentzeko ardurak. Inork ez du zalantzan jarriko lau urte gogor izan direla, ikuspegi politikotik behintzat, baina aldi berean emankorrak eta esanguratsuak Aretxabaletarrontzat.

Urte gutxi igaro dira Ezker Abertzalekoei leporatzen zigutenetik protestarako baino balio ez genuela. Odolaren gorria eta doluaren beltza besterik ez omen genuen ulertzen. Eskualde honetan aski demostratuta zegoen kontrakoa. Aretxabaletan, berriz, hura ezeztatzeaz gain gestionatzeko modu berri bezain aurrerakoia abian jartzeko gai izan zarete. Plangintza Estrategikoa jorratzeko era partehartzailea, edota Udala kudeatzeko estiloa, herritar guztientzat irekia eta berauen iritziak kontuan hartzen zuena… izan litezke, besteak beste, adibide batzuk.

Egia da baita ere, interes politikoak medio, lor zitezkeen beste hainbat egitasmo bidean geratu direla. Ea nork lepora diezaiokeen hori Ezker Abertzaleari Aretxabaletan.

Nire uste apalean, ikus-entzunagatik, goi mailako lana egin duzue. Zorionak, bada, Anjel, Luis, Josu, Socorro, Patas eta Andoni, ondorengoek ez dute lan motela zuena berdintzen.

A. I.
Aretxabaleta

## Espainiar legalitatea ala aretxabaletarron borondatea?

Aretxabaletarrok argi dugu Maiatzaren 25ean eginiko hauteskundeak "putxerazo" beldurgarria izan dela. Faxisten helburua aretxabaletarron 665 eta Euskal Herriko 169.000 pertsonen ahotsa isilaraztea eta zanpatzea delarik, guztiok erantzun beharrean gaude geure eskubideak errespetatu ditzaten.

Herritar guztioi dei egiten dizuegu ekainaren 14an, goizeko 11:00etan, udaletxean egon gaitezen Aretxabaletarron hitza eta borondatea errespetatua izan dadin.

ARETXA PLATAFORMA
Aretxabaleta

# Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE




Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Goio Arana (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla, Mireia Larrañaga, Natali Martinez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



ARGAZKI PRESS

# Gaizka Aranguren

NABARRALDE EKIMENEKO ZUZENDARIA

## “Inoiz izan baldin bada euskaldun guztion egitura politiko bat, hori Nafarroa izan da”

NAFARTASUNA

**“Zerbait bada elkarren aurkakoa, hori da nafartasuna eta espainiartasuna. Baina batzuek erabili izan dute nafartasuna mozorro bezala, euren espainiartasuna ezkutatzeko”**

EUSKALDUNON PROIEKTUA

**“Euskaldunon etorkizuneko proiektua Nafar Estatua da, Nafar Estatua berreskuratzea, hain zuzen ere. Izan baginen, bagara, eta zergatik ez gara izanen?”**

Nafarroako historia, kultura eta nortasuna ezagutzea helburu duen elkartea da Nabarralde. Elkarte horretako zuzendari Gaizka Aranguren eta Tomas Urzainki historialaria (*La Navarra marítima*) Arrasaten egongo dira astelehenean, Monterron jauregian, 19:00etan. Gaizka Arangurenekin (Iruñea, 1968) egin dugu berba egitasmo horren gainean.

ENEKO AZKARATE

**Astelehenean Mondragoen egongo zarete Nabarralde ekimen sozio kulturala aurkezten.**

Berbaldiaz gain, ikus-entzunezkoak ere eskainiko ditugu. Ekimen hori zein oinarritatik abiatu den azalduko dugu, gure herriaren ikuspegi historiko eta sozio-politikoa aztertuko dugu eta, horrez gain, ekimen horrek eskaintzen dituen zerbitzu guztien berri emango dugu.

**Zer da Nabarralde?**

Nafar lurraldearen gaineko memoria historikoa eta nortasun sozio-politikoa berreskuratzeko ekimena.

**Zerk bultzatu zintuzteten Nabarralde osatzera?**

Orain dela urte batzuk, Iruñean, bazen Iturralde izeneko elkarte bat. Han batzen ziren azken urteotan gure historia politikoaren gainean atera diren zenbait libururen egileak, hainbat artikulu idatzi izan dituztenak... Haien lekukoa hartu eta, zelanbait, ekimen askoz ere asmo handikoagoa bultzatzea erabaki genuen, eta horrela sortu genuen, 2001eko urrian, Nabarralde SL.

**Zeintzuek osatzen dute Nabarralde?**

Hiru figura desberdin bereiztu behar ditugu: batetik, bazkideak, gaur egun dagoeneko 24 direnak eta ekimena diruz babesten dutenak; bestetik, sustatzaileak. Kontuan izanik kulturan murgildu nahi dugula eta ez dugula dirulaguntzen mendean bizi nahi, gure sentsibilitatearekin bat egiten duen jendea batzen dugu ekimen horren alde, eta pertsona horietako bakoitzak eskaintzen dizkio sei egun eta erdi hilean elkarteari. Haien lanari esker, gastuen %75 betetzen dugu. Dagoeneko 570 sustatzailetik gora dira, eta urtea amaitu baino lehen 1.000 edukitzea da helburua. Horrekin ziurtatzen dugu ekimenaren bizi iraupena; azkenik, badago beste figura bat, eduki sortzailea deitzen dioguna. Edozein jakintza esparrutik, sorkuntzarako gaitasuna dutenak batzen dira hor, eta horiekin katalogo bat osatzen dugu, gero, gure bezero nagusien artean (udalak, hezkuntza zentroak...) komertzializatzeko.

**“Nafarroa Euskadi da” esan izan da, baina orain, agian, “Euskadi Nafarroa da” esaten hasi beharko dugu, ala?**

Ikuspegi politikotik, bederen, Nafarroak batu izan ditu euskaldunak egitura politiko bateratuan. Inoiz izan baldin bada euskaldun guztion egitura politiko bat, hori Nafarroa izan da.

**Eta zergatik esan izan da azken mendean “Nafarroa Euskadi da” eta ez alderantziz?**

Azken urteotan *Euskadi* kontzeptuak indarra galdu du, gure lurraldearen parte batek patrimonializatu egin duelako, alegia, Euskal Autonomia Erkidegoak bere buruari horrela deitu diolako. Euskal soberania berreskuratzearen aldeko hainbat korronte ideologikok aintzat hartu izan du *Euskadi* hitza, Euskal Herria politikoki askea adierazteko. Baina azken urteotan *Euskadi* hitzak gure eskualde eta haran atlantikoak bakarrik irudikatu ditu. Eta ohartu behar dugu euskaldunak askoz ere lehenagotik gaudela mundu honetan, eta euskaldun guztien adierazgarri izan daitekeen fenomenoa XIV. mendeko eta aurreragoko fenomenoa dela. Erromatarrek, esaterako, Ager Vascorum deitzen zieten gure lautadei. Eta euskalduntasunaren eredua behe haran berde horietara mugatzen badugu, erreferentzia gutxi geratzen zaio Tafallako bati.

**Zenbateraino izan dira Nafarroa beste hiru lurraldeak?**

Nire berbak erabili beharrean, gurago dut beste batzuenak erabili; esaterako, Anakleto Ortueta bilbotarrarenak edo Ildefonso Gurrutxaga azpeitiarrarenak, kontzeptualizatzen dutenean Nafarroako erresuma ikuspegi juridikotik euskaldunon estatu gisa. Gauza hauek guztiak aspaldidanik esanda daude, baina zoritxarrez hautsez josita egon dira. 1200ean, Gaztelak berenganatuta zituen mendebaleko nafar lurralde horiek, eta handik aurrera hartu zuten egitura administratiboa, modu batera edo bestera ordura arte Nafarroako erresumako lurraldeak izanik.

**Zelan ulertu gaur egun Nafarroan indar politiko nagusiak direnak euren burua nafar eta espainol bezala agertzea?**

Noizbait, zerbait izan bada dikotomikoa eta elkarren aurkakoa, hori da nafartasuna eta espainiartasuna. Gertatzen da hemen batzuek erabili izan dutela nafartasuna mozorro bezala, euren espainiartasuna ezkutatzeko. Lotsagarria da ikustea hainbatek bere nafartasuna baztertu izana, nolabaiteko nortasunaren interpretazio murriztu baten.

**Zenbaterainoko balioa eman behar zaio historiari?**

Gure interesekoa izan daitekeenaren araberakoa. Herri honek bere soberania berreskuratzea ezinbestekoa dela iruditzen zait, bizi irauteko. Zer gertatzen da? Bada, historiak, gainera, ematen dizkigula erreferente oso garbiak esateko hemen guk egitura propioa ukan izan dugula, eta, hain zuzen ere, egitura politiko hori bertan behera geratu zela ez bere kabuz, baizik eta bai iparraldetik baita hegoaldetik ere eragin gintuztelako.

**Eta zuen lana da jendeari gogoraraztea zeintzuk diren erreferente horiek.**

Nire iritziz garrantzitsua da jakitea herri honek ez duela bere historia ezagutzen. Hori nabaria da.

**Gipuzkoan, Bizkaian, Araban... zelako erantzuna izan du Nabarraldek?**

Orain arte, bereziki, Nafarroa Garaian eta Gipuzkoan ibili gara. Nafarroa Garaian egin ditugu 70 bat aurkezpen eta Gipuzkoan 16. Eta sustatzaileak proportzio horretan lortu ditugu. Bizkaian aurkezpen bi bakarrik egin ditugu eta Araban, Trebiñon. Hango alkateak esan zigun zelan orain dela urte bi, Trebiñoko afera gorigori zegoelarik, horrenbeste hilabete borrokan ibili ondoren, inork ez ziela kasurik egiten, eta abenduaren 28an, Inuzente Egunean, bidali zutela ohar bat hedabideetara esaten aurrerantzean eskatuko zutela Nafarroara itzultzea. Gaztelako erregeak Miranda de Argaren truke eman zuen bere garaian Trebiño.

**EAE, Euskadi, Euskal Herria eta orain Nafarroa. Gauzak argitu ala nahastu egingo ditu?**

Gure asmoa kontuak argitzea da, oso nahastuta daude-eta. Politikari askok, dauden tokiaren arabera, *Euskadi* berbari ematen diote esanahi bat edo beste bat. *Euskal Herria* kontzeptua politikoki erabiltzen hasi gara azken 20 urteotan, hain zuzen, *Euskadi* hitzak jasan duen prostituzioagatik. Kontua da, orain, *Euskal Herria* kontzeptuari ere gauza bera gertatzen ari zaiola. *Euskal Herria* kontzeptua euskararen herria izendatzeko erabili izan da historian, baina hori ere ez da oso zuzena; izan ere, euskararen herria izateari aspaldi utzi zioten hainbat eskualdek, eta ez euren borondatez, seguruen.

**Euskaldunon etorkizuneko proiektua da Nafar Estatua?**

Bai, Nafar Estatua berreskuratzea, hain zuzen ere. Izan baginen, bagara, eta zergatik ez gara izanen?

**Egungo egitura politikoak, Europako Batasuna, eta abar, ahalbidetzen du hori?**

XII. mendean Europan zeuden egitura politikoen artean, euskaldunon adierazpide politikoa izan zen Nafarroako erresuma zegoen. Nor gu baino europarragorik? Nafarroa Europako estatu bat izan da eta izan beharko du berriro ere.

## Podiuma

# Jon Muruamendiaraz |FUTBOLARIA|

**Goiena sariaren irabazlea. Aurtengo denboraldiko ibarreko futbol taldeen artean, futbolari onena, hortaz. Txikitatik Mondran hasitakoa, eta gaur egun ere, bertan dihardueна. Aurtengo eta datorren denboraldiararen gainean egin dugu berba harekin.**

**Ibarreko futbol taldeko jokalarien artean, onena izan zara aurten. Zer deritzozu?**

Nik taldean ahal nuena egin dut, eta horrekin sailkapeneko lehena izatea lortu badut, pozik egoteko modukoa da. Baina, batez ere, egindako lanarekin geratu naiz gustura.

**Zurea ez ezik, Mondraren urtea ere izan dela dirudi; gainera, taldea mailaz igo da. Pozik egoteko arrazoirik ez zaizu falta, ezta?**

Oso pozik nago, bai. Erregional mailan lau urte egin ditugu, eta gure helburua mailaz igotzea zen. Azken denboraldian, oso talde ona izan du Mondrak, eta gure helburua lortu dugunez, pozik gaude.

**Erregional mailako *pitxitxia* izan zara, 37 gol sartuta. Zer behar du aurrelari on batek?**

Argia izan behar du. Gero, badira batzuk errematean onak direnak, beste batzuk burua erabiltzen dutenak... Taldekideen paseak aprobetxatzen eta golak sartzen saiatzen naiz.



GOIENKARIA

Debagoieneko futbol taldeen artean, kirolaririk onena izan da Jon.

> **"Aurrelari onak argia izan behar du; taldekideen paseak aprobetxatzen eta golak sartzen ahalegintzen naiz"**

> **"Datorren denboraldian ibarreko taldeen aurkako derbietan indartsu irtengo gara, irabaztera"**

**Zure jokoa eta emaitzak ikusita, jaso duzu beste talderen baten eskaintzarik?**

Ez. Baina eskaintzarik egingo balidate, ez dakit joango nintzatekeen. Oraingoz, nire asmoa Mondran geratzea da. Hala ere, gazte mailatik jokalari gazteagoak indartsu datoz, eta postua kenduko balidate eta Mondran jokatzerik izango ez banu, beste talderen batera joateko aukera aztertuko nuke.

**Hainbeste gol, taldearen igoera... Aurtengoa izan da inoiz futbolean egin duzun denboraldi onena?**

Gazte mailan, behin lortu genuen mailaz igotzea, baina, duda barik, aurtengo denboraldia izan da onena. Oso erregularrak izan gara jokoan eta partidu gutxi galdu ditugu; hain zuzen, horrek ireki digu goiko mailarako bidea.

**Datorren urtean, Bergara, UDA, Aloña Mendi... taldeen aurka jokatuko duzue. Zelan ikusten duzu zeure burua maila horretan?**

Partiduren bat jokatu dut maila horretan, eta ez dut uste ezberdintasun handirik dagoenik erregionalarekin alderatuz gero. Erregionalean, sei edo zazpi taldek maila ona erakusten dute, eta gainerakoak beherago daude. Orain, berriz, taldeen maila oso antzerakoa da. Gure asmoa mailari eustea da, eta horretan saiatuko gara. Eta ibarreko taldeen aurkako derbietan indartsu irtengo gara, irabaztera.

**Mailaz igo zareten honetan, zer esango zenieke jarraitzaileei?**

Eskerrak eman nahi dizkiet azken partiduetan gurekin egon direnei, baina, batez ere, beti gurekin izan diren zaleei.

IRATI AGIRREAZALDEGI

## GOIENKARIA SARIA

IRABAZLEA



1 **Jon Muruamendiaraz** Mondra



2 **Gorka San Vicente** Bergara



3 **Xabi Camino** Aloña Mendi



4 **Eric García** Aretxabaleta



5 **Josu Zubikarai** Bergara



6 **Jon Altzola** Bergara



7 **Xabi Arregi** Bergara



8 **Iban Unanue** Aloña Mendi



9 **Alberto Matalobos** Aretxabaleta



10 **Joseba Albizu** Aloña Mendi

SAILKAPEN OROKORRA

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1.** | Jon Muruamendiaraz | (Mondra) | 20 puntu |
| **2.** | Gorka San Vicente | (Bergara) | 16 puntu |
| **3.** | Xabi Camino | (Aloña Mendi) | 14 puntu |
| **4.** | Eric García | (Aretxabaleta) | 10 puntu |
| **5.** | Josu Zubikarai | (Bergara) | 10 puntu |
| **6.** | Jon Altzola | (Bergara) | 9 puntu |
| **7.** | Xabi Arregi | (Bergara) | 8 puntu |
| **8.** | Iban Unanue | (Aloña Mendi) | 7 puntu |
| **9.** | Alberto Matalobos | (Aretxabaleta) | 6 puntu |
| **10.** | Joseba Albizu | (Aloña Mendi) | 5 puntu |

**Goienkaria**

## Kirolabur



### OÑATI/TXIRRINDULARITZA

Markel Irizar Orbea-Olarra-Consultec taldeko txirrindulari oñatiarra Euskaltel-Euskadiko elastikoa jantzita ibiliko da bizikleta gainean 2004tik aurrera. Baliteke irailetik aurrera profesional mailako lasterketaren baten parte hartzea ere. Bost urtez amateur mailan jardun ostean, profesionaletara egingo du salto 23 urteko txirrindulariak. Irizarrendako ezusteko atseginа izan da fitxaketa: "Aukerak izan nitzakeela banekien arren, hain azkar izaterik ez nuen espero, eta ilusio handia egin dit", esan digu Markel Irizarrek.

### DEBAGOIENA/GIMNASIA ERRITMIKOA

Joan den domekan, ekainaren 8an, jokatu zen Donostian Euskadiko Gimnasia Erritmikoko Txapelketa. Uxue Arregi antzuolarra izan zen irabazle gazte mailan, Maialen Toledo laugarren postuan sailkatu zen eta Iraitz Gastiain, berriz, bosgarren. Uztaiarekin eta zintarekin jardun zuten gimnastek; kadete mailan ere izan zen ibarreko ordezkaririk: Virginia Odriozola lehenengo izan zen B kategorian, eta Maialen Legorburu, hirugarren; Irati Arteaga bigarren sailkatu zen A kategorian.

### ARETXABALETA/KIROL FOROA

Aretxabaletako kirol taldeek foro bat sortu dute herriko kirolariak batzeko asmoz. Kirol elkarteek ekitaldiak antolatzeko dituzten zailtasunei irtenbideak bilatzea eta talde guztien arteko komunikazioa zabaltzea dira foro horren helburu nagusiak. Teknologia berriak kirolaren zerbitzura erabiliko dituzte, hortaz, Aretxabaletako kirol taldeetako ordezkariek. Egitasmo hori talde batzuek abiarazi duten arren, orain, herriko kirol elkarte guztiei emango diete foroaren berri.

### ARRASATE/FUTBOLA

Realak Vigon jokatuko du, domekan, Celtaren aurka liga irabazteko erabakigarria izan daitekeen partidua. Jarraitzaile asko joango dira Galiziara, baita debagoiendar ugari ere. Baina, beste asko hemen geratuko direnez, eta partidua telebistaz ikusi beharko dutenez, zale horiendako pantaila erraldoia jarriko dute Uarkape Udal Pilotalekuan Arrasateko jarraitzaile taldeek, norgehiagoka giro txuri-urdinean ikusteko.

### ESKORIATZA/MENDIA

Domekan egingo dute, Eskoriatzan, Bittor Arrieta mendizalearen omenez antolatzen duten Txikirri-Txikirri mendi ibilaldia. Herriko Plazan hasi eta amaituko da 40 kilometroko ibilaldia. 07:00etan irtengo dira, eta Mendiola, Kurtzebarri, Degurixa, Mugarriluze, Bentafria, Jarindo, Kurtzeta eta Apotzagatik pasatu ostean, Eskoriatzara helduko dira, 14:00ak eta 16:30ak artean.

### ARRASATE/PILOTA

Profesional mailako pilota jaialdia izango da bihar, zapatua, Arrasateko Uarkape Udal Pilotalekuan. Eskuz binakako lehen partiduan Beloki II.a-Nalda III.a bikoteak Azpirozen eta Beginoren aurka jardungo du. Bigarren partidua Unanuek eta Pascualek Esain eta Beloki burlatarren kontra jokatuko dute. Partiduak arratsaldeko bostetan hasiko dira.

# Gorlako auto igoera zapatuan Bergaran

## Hirurogei parte-hartzaile espero dituzte

**Gorlako Igoeraren 13. aldia izango da bihar-koa. Espero dituzten 60 auto gidariek euren trebezia erakutsi beharko dute 4,9 kilometroko ibilbidean, Euskadiko Txapelketarako puntuaga-rria den proban. Aitor Zabaleta faboritoaz gain, beste lau debagoiendar ere egongo dira irteeran.**

Gorlako auto igoera jokatuko da bihar, zapatua, 16:00etan hasi-ta. Bergara Racing taldeak anto-latuta, 13. aldia izango da aur-tengoa, eta 60 lagun inguru izan-go dira proban.

Gorlako bidea 15:00etan itxi-ko dute, eta 16:00etan, pilotuek entrenamendu saioa egingo dute, ibilbidea ikusteko. Horren ondoren, beste bi txanda izan-go dira jokoan.

**BETIKOAK, FABORITO**

Aurtengo Gorlako lasterketa irabazteko faboritoak Andres Vilariño, Pantxo Egozkue, Aitor Erro eta Aitor Zabaleta dira. Vilariñok eta Egozkuek For-mularekin jardungo dute eta Zabaletak eta Errok, aldiz, bar-ketak aterako dituzte.

Zabaletaz gain, beste deba-goiendarrik ere egongo da biharko lasterketan: Aitor Ramírez, Jose Angel Samanie-go eta Asier Mugertza oñatia-rrak eta Iñigo Almortza berga-rarra, hain zuzen ere

Lasterketa Euskadiko Txa-pelketarako puntuagarria izan-go da. Orain artean txapelke-tako proba bakarra jokatu da, San Cosmekoa, eta bertan Aitor Zabaleta izan zen irabazle.

Ikusleek 15:00etan bidea itxi-ta izango dute, eta ezin izango da autoz igo Gorlara behin ordu hori pasatuta. Gainera, zaleek zortzi euro ordaindu beharko dituzte ibilbidean sartzeko.

16:00etan hasitako proba 20:00etan amaituko dela esan dute Bergara Racing taldeko antolatzaileek. Gero, sari bana-keta egingo dute, 21:30ean, Jam aretoan.

IRATI AGIRREAZALDEGI

ARRASATEN
PABILIOI INDUSTRIAL/KOMERTZIALA
SALGAI
Leku ezin hobean 3.600 m$^2$
Bulegoendako instalazioak, elektrizitatea, aire girotua, komunak
3.600 m$^2$, moduluak 300 m$^2$-tik aurrera
575 euro/m$^2$-tik aurrera (96.500 pta.)
629 06 14 72



EGITARAUA

Udako Ikastaroak

2003



- Mekanografia ordenagailuz
- Informatika-Ofimatika
- Aurkezpenak programa konbinatuekin (Windows Millenium 2000, word 2000, Excel 2000, Access 2000, P.point 2000)
- Umeentzako informatika (word, power point, escaner)
- Web orrien diseinua (Dreamweaver, flash, javascript, html, Frontpage)
- Internet
- Microsoft project
- Autocad
- Programazio informatikoa: Pascal,ORACLE...
- Gestio kontablea: "Nomina Plus", "Fact Plus", "Conta Plus"
- Nomina eta gizarte segurantza
- Informatikako ekipaien mantentze eta konponketa
- Laguntza klaseak
- Enpresa zientziak
- Ingenieritza

AKADEMIA BASTIDA

Araba Etorbidea, 3 - 1ª • 20500 Arrasate-Mondragón • Tel.: 943 79 35 33 • Fax: 943 79 06 28 • E-mail: bastida@bastida.es

Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko ekainaren 13a

Kultura eta aisialdia

Ekainaren 13tik 20ra

Euskal Herriko txistulari oneneta-tik gehienak gurean, Debagoiene-an, egongo dira bihar, zapatua, orduan ospatuko da-eta, Oñatin, Euskal Herriko udal txistulari banden topaketa eguna. Besteak beste, baieztatuta dago Euskal Herriko txapelduna, Aitor Arozena, eta iazko txapelduna, Garikoitz Mendizabal, etorriko direla. Hamabi herritako taldeak etorriko dira: Donostia, Bilbo, Gasteiz, Iruñea, Irun, Bera, Tolosa, Barakaldo, Santurtzi, Errenteria, Miarritze eta Azpeitiko taldeak, Oñatiko txistulariez gain. 70 bat lagun. Esan beharra dago, ordea, talde horietatik guztietatik gutxi batzuk –hiriburuetakoak– bakarrik direla udal bandak; izan ere, gainerakoak txistulariek eurek osatutako talde edo elkarteak dira, eta horixe bera da oñatiarren kasua.

Oñatiko Aita Madina txistulari elkartearen ekimenez ospatuko da biharko jaia, eta txistulari bandei eta taldeei urte osoan egiten duten lanagatik omenaldia egiteko modu polita izango da. Ez hori bakarrik: ekitaldi horren bidez, debagoiendar guztiok izango dute euskal musika-gintzako tresna esanguratsu hori bere onenean, alarde publikoan, berriro gozatzeko aukera.

Debagoienari dagokio txistularien topaketa horren bigarren aldiari ostatu emateko ohorea; aurrekoa iaz izan zen, Tolosan, Euskal Herriko Txistulari Elkartearen 75. urteurrena-gatik ospatutakoa. "Elkarteari eskatu genion baimena aurten jaialdi hori Oñatira ekartzeko, eta baietza eman ziguten. Guk antolatu dugu guztia; eurek baliabideak ipini dituzte", diote Aita Madina elkartekoek. **/14**

# TXISTULARI BANDEN TOPAKETA OÑATIN



**Txistuak Euskal Herriaren historia osoan bizirik iraun du. Aspaldidanik, antzinako euskaldun batek hezurrezko lehen txistua egin zuenetik, gure artean bizi da. Txistua, historian barrena, garai bakoitzean zekarren teknikabideari esker, soinuz eta itxuraz hobetuz joan da. Eta hori, zalantza barik, ez da kasualitatez izan; gure artean, euskaldunen artean, izan duen maitasunaren fruitu baizik".**

**Jose Ignazio Antsorena txistulariaren berba horiek dioten moduan, euskaldunok maitasun handia izan diogu txistuari, eta alarde eta herri jaien bidez segitzen dugu, XXI. mendean, gure kulturan hain sustrai sendoak dituen antzinako tresna horrekiko sentimendua erakusten. Horren hurrengo eredu, bihar, zapatua, Oñatin ospatuko den jaia, Euskal Herriko txistulari banda eta talde onenetariko batzuekin.** /LEIRE KORTABARRIA

GOIO ARANA

MUSIKA/ UDAL TXISTULARI BANDEN TOPAKETA BIHAR OÑATIN

# Euskal Herriko txistulari onenak

IPAR ETA HEGOALDEKO 13 BANDA ETA TALDEKO TXISTULARI BIKAINEK HARTUKO DUTE PARTE JAIALDI BATEN BIHAR, ZAPATUA, OÑATIN

LEIRE KORTABARRIA

**Txistuaren soinuak beteko ditu bihar Oñatiko kaleak eta Herriko Plazako txokoak, Euskal Herriko txistulari onenetariko batzuen eskutik. Goizean hasiko da jaia, gonbidatutako txistulari talde eta bandei harrerarekin; gero, kalejira eta hainbat emanaldi egongo dira.**

Aita Madina Oñatiko txistularien elkartea arduratu da biharko jai egitaraua antolatzeaz; eta Euskal Herriko Txistulari Elkartearen laguntza izan du horretarako. 11:30ean, txistulariei harrera ofiziala egingo die orain arte indarrean segitzen duen Udalak; 12:00etan, kalejira egingo dute talde guztiek elkarrekin; 13:00etan, plazan, kontzertua eskainiko dute; eta 18:00etan, azkenik, dantzaldia girotuko dute plazan.

Antolatzaileek komentatu dutenez, hasiera baten 70 txistulari elkartzea espero dute –iaz baino 30 bat gehiago izango lirateke–, baina ez da ahaztu behar ekainaren 14a dela udal berrien eraketa eguna, eta baliteke hainbat taldekidek euren herrietan geratu behar izatea, ekitaldi ofizialen baten parte hartzeko; baina baieztatu digute gonbidatutako herri guztietako ordezkariak egongo direla.

**JARRAIPENA EMAN**

Euskal Herriko Txistulari Elkartekoek honakoa diote: "Iazkoa esperientzia ona izan zen, eta Oñatikoaren ondoren, jarraipena eman gura diogu jaialdiari".

Oñatiarrek, aurtengo antolatzaileek, asmo bera darabilte, eta ilusioz ibili dira jaialdia prestatzen. Pozik daude, gainera, gero eta gazte gehiagok dutelako txistuarekiko interesa: "Badaude kimuak, bai, eta guk gustura hartzen ditugu datozkigun guztiak".



TOLOSALDEKO HITZA

Iaz, Tolosan egin zuten txistulari bandek euren lehen topaketa. Bigarrena Oñatin egingo dute, bihar.

icolandia

Europan lehenak gara umeen aisialdian, eta barruko eta kanpoko 500 jolastoki baino gehiago instalatu ditugu.



Gure icolandia produktuak diseinatu eta fabrikatzen ditugu, jolasak umeen garapen fisiko, sozial eta emozionalarendako ezinbestekoak direla pentsatzen dugu-eta; eta, horregatik, kolore, forma eta jardueraz betetako mundu bat sortzen dugu.

IAAPA · TÜV · apave · ACEFA · empresa colaboradora unicef

ICOTEC 2000. S.A.
Txako poligonoa, 3. eraikina, 5. pabilioia, esk.
48480 ARRIGORRIAGA (Bizkaia)
Tel. (+34) 94 671 30 90 • Faxa: (+34) 94 671 40 28
www.icolandia.com • Posta-e: info@icolandia.com

## JOSE IGNAZIO ANSORENA / DONOSTIAKO TXISTULARI BANDAKO BURUA

# *"Bizi izatea da nire lanbide nagusia"*

**Gizon polifazetikoa dela hamaika aldiz esan diote, baina horixe da txistulari, pailazo eta telebista aurkezle horrendako definiziorik egokiena. Jose Ignaciok zuzentzen duen banda, Donostiakoa, Oñatin izango da bihar.**

**Izango zara bihar Oñatin?**

Udalbatza berria eratuko da bihar, eta baliteke Donostiako udal eraketa dela-eta, ekitaldi ofizialean parte hartu behar izatea. Edozelan ere, Donostiako txistulari bandako kide batzuk Oñatin egongo dira. Deitzen diguten ekitaldi guztietara joaten saiatzen gara.

**Biharkoa ez zenuke lehen aldia izango Oñatin...**

Ez, ez, askotan izandakoa naiz han, bai lanak eramanda, bai eta bisitari soil moduan... Baina txistulari bezala ere hamaika aldiz egon naiz han: kontzertuetan, Musika Hamabostaldian, omenaldiak direla-eta... Azkenaldian, esaterako, Musika Hamabostaldian izan dut parte hartzea, nire bi lan –*Gloria* eta *Kattalin txiki*– eskaini zirelako, bi astean jarraian. Esan bezala, ahalik eta konpromiso gehienei baietza ematen saiatzen naiz. Iaz arazoak izan nituen, ordea, bihotzekoa dela-eta.

**Hainbeste lan konpromiso, hainbeste ogibide desberdin... izateak izan zuen eraginik horretan?**

Ez, beste arrazoi batzuengatik izan zen. Lan asko egiten dut, bai; baina egiten dudan lana kreatiboa da, artistikoa, eta horrek ez du kalterik egiten.



ALBERTO ELOSEGI

> *"Deitzen diguten ekitaldi guztietara joaten saiatzen gara Donostiako Udal Bandakook"*

**Galdetuz gero, zein esaten duzu dela zure lanbide nagusia gaur egun?**

Txistulari eta pailazo naizela esaten dut. Hala ere, egia esan, bizi izatea, horixe da nire lanbide nagusia.

**Txistulari izatetik pailazo edo telebistako aurkezle izatera jauzi handia dago. Zelan pasatu zinen batetik bestera?**

Txiripaz izan zen. Filologia Harmonikoko ikasketak egin nituen, eta irakasle nintzen. Pailazoen kontuari orain dela 13 urte eutsi genion; hori eta musikarena zaletasun bezala genituen sasoi hartan. Gero, hainbat arrazoi zirela-eta, denbora gehiago eskaintzen hasi nintzaion zaletasun horiei. Garai hartan ez zegoen beste pailazo talderik Euskal Herrian, eta horrek ere eragina izan zuen. Telebistara pasatu ginen, eta hortik etorri ziren ez bakarrik pailazoen telebista saioak, baizik eta beste programa batzuk ere.

**Pailazo edo aurkezle moduan baino gehiago, ez zenuke gurago txistulari moduan ezagunen izatea?**

Ez, ez. Nire iritziz, ezagun izatea ez da plazerra, lanaren alderik txarrena baizik. Gurago nuke ezezagun izan eta askatasun handiagoa izatea.

KRONIKA/ BERGARAKO JAIAK

# Jai arrakastatsuak Bergaran

EGUNEKO ETA GAUEKO ANIMAZIOAREN ARTEKO OREKAK DEFINITU DITU AURTENGO MENDEKOSTE JAIAK

GOIENKARIA

**Jaietan gauza txarrik ba ote dago, ala? Horixe bera esan zigun bergarar batek jaien gaineko iritzia galdetu genionean. Aurtengo Mendekoste jaiak, egia esan, oso arrakastatsu izan dira, bertako eta kanpokoen pozerako.**

Herrietako jai guztietan gertatzen den moduan, gazteek gaua izan dute nahiago; helduagoek eta umeek, berriz, egun argiko ekintzak. Inork komentatu du aurten egunez ez dela beste urte batzuetan bezainbat jende ibili; hala ere, eguneko ekintzek ere jarraipen handia izan dute, eguraldi bikainak lagunduta.

Egunaz gozatzeko aukera onena martitzenean izan zen, jaietako azken eguna, alegia: kirol erakustaldia, herri bazkaria, pilota partiduak… egon ziren, eta, zelan ez, Incansables txarangaren musika alaia, hura jai egun guztietan. Tolosarrek 25 urte daramatzate Bergarako jaiak girotzen, eta hori ere eskertzekoa da.

Arrakasta handia izan duten beste eskaintza batzuk ere egon dira: esaterako, kale antzerkia –Mikel Laskurain aktore bergararrak bere herrikideak ondo animatu zituen–, Udal Bandaren emanaldi kementsua astelehen eguerdian, oso pieza zailekin, Euskadiko Dantza Txapelketa...

Zezenei dagokienez, Errekortadoreen Euskadiko IV. Txapelketa jokatu zen, 11 bikoterekin; onenak, Zangozatik etorritakoak. Sarrera polita egon zen zapatuan zezen-plazan.



**Eguneko giroa.** **Gero eta gehiago, gaua izaten da protagonista jai guztietan, baina egun argiz gozatzeko moduko hamaika ekintza ere egon ziren: adibidez, Udal Bandaren emanaldiak eta kalejirak. Asteleheneko kontzertua aparta izan zen, eta publikoak eskertu egin zuen.**



**Gazteen ekintzak.** **Gazteendako klasiko bihurtu diren aukerak egon dira: adibidez, herri bazkaria, beti bezain jendetsua, martitzenean. Baina berritasunak ere egon dira: nabarmenena izan da Bideberrin 24 orduz zabalik egon den karpa. Jaizaleek oso ondo hartu dute berritasun hori.**

#### GAUEKO GIROA

Baina, esan bezala, gaua izan da, beste behin, jaiotako izar. Gazte Asanbladakoek berritasun batzuk antolatu dituzte aurten: nagusiena izan da karpa erraldoi bat ipintzea Bideberrin. Gau eta egun egon da karpa zabalik, nahiz eta egun argiz ia inor ez den hurreratu. Inguruak erabilitako edalontziz eta beste hondakin batzuez beteta geratu ziren, hori bai. Usain txarra zegoela ere komentatu du hainbatek. Arazoak arazo, ordea, oso puntuazio altua merezi du, jaizaleen iritziz, Gazte Asanbladakoen ekimen horrek: "Zerbait desberdina eta erakargarria egiten ahalegindu dira", zioten hainbat gaztek.

Musikari dagokionez, estilo askotariko emanaldiak egon dira gau partean. Txalo gehien jaso dituztenak hauexek izan dira: batetik, Cool Jerks taldearen saioak, Bideberrin; eta Joseina Etxeberriak girotutako disko festak.

#### ENTZIERROAN JENDE GUTXI

Zerbait kentzekotan, galdetutako herritarrek aipatu dute entzierroak asko galdu duela azken urteotan: "Lan eta eragozpen handia dakar ibilbidea muntatzeak, eta oso jende gutxi ibiltzen da", komentatzen zuten.

### Parte-hartzea

Topikoa badirudi ere, horixe izan da 2003ko Mendekosteetako arrakastaren gakoa: jendeak gogoz esku hartu du aurtengo ekintza guztietan. Eguneko ekintzen artean, txaranga, Udal Bandaren emanaldia, kale antzerkia eta herri bazkaria nabarmen daitezke.

### Proposamen berriak

Jai egitarauak proposamen klasiko ugari zituen, urte batetik bestera errepikatzen direnak; baina antolatzaileak gauza berriak eskaintzen ere saiatu dira, hala nola: Luar Na Lubreren emanaldia, Bideberriko karpa –horrek, batez ere, arrakasta handia izan du– eta plazako txosna.

### Kiratsa, zikinkeria...

Usain txarrak, zikinkeria, musikaren bolumen altuegia eta kaleko iskanbila izan dira hainbat bergararren kexu entzunenak. Bideberriko karparen ondoko edukiontziak, adibidez, edalontziz eta beste hondakin batzuez beteta zeuden domekan, hustu barik.

### Hainbat gorabehera

Bitorianatxoren jaitsiera ekitaldian, jaien hasiera markatzen duena, gorabeherak gertatu ziren: Bitorianatxori berari ia amantala erori zitzaion; askoz larriagoa izan zen, ordea, Bergarako alkateari arrautzak bota zizkiotenekoa. Zorionez, horrek ez zuen giro alaia zapuztu.

LASAGABASTER
LASAGABASTER
www.lasagabaster.com
Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

# Ekainak 13–20

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

**IRAKASLEA**

IRAKASLE bat kontratatu nahi da UDALAKO INGURUGIRO ESKOLARAKO aldi baterako.

**Baldintzak:**
- Diplomatura edo unibertsitateko erdi mailako titulua.
- Euskara jakitea, 3. HEren parekoa.
- Beste batzuk.

**Izena emateko epea**: ekainaren 16tik uztailaren 4ra arte (biak barne, Sanjoanetako astea izan ezik).

**Oinarri-arauak**: Udaletxean eta web orrian jaso daitezke: arrasate-mondragon.org

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Pertsonal saila

**LAN ESKAINTZA**

Haurtzaindegietarako eta zentro publikoetarako deialdiak laster

**HAURTZAINDEGIKO LANGILEAK**

**Haurtzaindegian LH–2 eskatzen da**

**Informa zaitez!**
**943 444 509**




## MUSIKA

### ARRASATE

► **Arrasate Musikalek hainbat emanaldi** egingo ditu gaur hasi eta datorren astera arte. Gaur, egubakoitza, ikasturte bukaerako emanaldia egongo da Amaia Udal Antzokian, 19:00etan. Bihar, zapatua, umeen danborradari egingo diote lagun, Zalduspetik abiatuta, 18:30ean. Datorren martitzenean, hilak 17, balet taldearen emanaldia egongo da, Seber Altube plazan, 18:00etan; eta eguaztenean, hilak 18, ikasturte amaierako kontzertua, euren egoitzan, 18:30ean.

### BERGARA

► **Gaztetxeak hirugarren urteurrena egiten duela-eta, kontzertuak** egongo dira datozen egunotan. Gaur, egubakoitza, NCC eta Muletrain (ex Aerobitch) taldeen emanaldia egongo da; bihar, zapatua, Anorexia eta Natua Man taldeena, biak gaztetxean, 22:30ean.

### ELGETA

► **Ostiada oi! eta Punteroi!** musika talde elgetarrek 'Euskaldunon Egunkaria'-ren aldeko kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 23:00etan.

### ESKORIATZA

► **Kokein** rock taldeak kontzertua eskainiko du gaur, egubakoitza, udaletxe zaharrean, 22:00etan.

### OÑATI

► **Miztura eta Aina** taldeen kontzertua egongo da eguaztenean, ekainaren 18an, gaztelekuan, 22:30ean.

## DEIAK

### ANTZUOLA

► ***Borondatezko lana*** **delako hitzaldia** egingo du Nagusilan taldeko kide Juan Mari Garitanok martitzenean, ekainak 17, Olaranen, 18:00etan.

### ARETXABALETA

► **On Bitoriano Aranburu abadeak** urrezko ezteiak egiten dituela-eta, omenaldia egingo diote herritarrek etzi, domeka. Meza egongo da parrokian, 12:00etan, eta bazkaria Taberna Barrin.

► **Udaleku Irekiak** antolatu ditu Udalak. Ekainaren 20ra arte izango duzue izena emateko.

### BERGARA

► **Jolasleku Ibiltaria programa** antolatu du Jardun elkarteak 6 eta 12 urte artekoendako. Hurrengo jolasgunea Espoloian egongo da, gaur, egubakoitza, 17:00etatik 19:00etara.

► ***Berriak Berri*** bideoaren emanaldia egongo da datorren martitzenean, hilak 17, gaztetxean, 19:00etan.

### ESKORIATZA

► **Orioko kanpinean egonaldia** antolatu du Gaztekantoi zerbitzuak uztailaren 10etik 16ra, DBHko 3. eta 4. mailako ikasleendako. Izena emateko epeak zabalik dirau. Horretarako, jo kultura etxera, lehen bailehen.

### OÑATI

► **Bilin-Bolon zirkuaren emanaldia** egongo da bihar, zapatua, kiroldegian, 18:00etan. AEK-k Korrika Kulturalaren barne abian jarri zuen proiektua da.

► **Herri Egunean taloak egiteko postua** eramango duen talde bat behar du Udalak. Interesa duten guztiek kultura etxean egin beharko dute izenematea, ekainaren 18a baino lehen.



► JAIALDIAK

### 70EKO HAMARKADAKO II. JAIA EGINGO DUTE BIHAR MONDRAGOEN

Iazko jaialdiaren arrakasta ikusita, Arrasateko gazte batzarrak 70eko hamarkadako II. jaia antolatu du bihar, zapatua. Bide batez, Arrasateko gaztetxe inauguratu berria ezagutzen ez dutenek horretarako aukera izango dute. Honako taldeek joko dute: Versus, Anger, Honky Tonk, Los Rompecorazones (Los Cretinos), The Flamin' Jukebox (The Jukebox), Experience, Chachi Way Rebels eta Fat Lizzy (Los Chicos Boom) taldeek, Arrasatetik; horiez gainera, Rockers Go To Hell (Galiziako Los Ultracuerpos), Mermaid (Iruñea), Las Novias y Las Hermanas de Los Obligaciones (Gasteiz) eta Los Rumps (Santander) ere egongo dira. 70eko itxuraz mozorrotzen direnek hiru euro ordaindu beharko dituzte; gainerakoek, bost.

**Non:** Arrasateko gaztetxean. **Noiz:** bihar, zapatua, 17:00etan. **Txartelak:** hiru euro, mozorrodunendako; bestela, bost.



## ‘1937. GOGOAREN BIDEZIDORRETATIK’

*1937. Gogoaren bidezidorretatik* dantza eta antzerkia uztartzen dituen lana taularatuko dute Kukai eta Ttanttaka taldeek datorren egubakoitzean, hilak 20, Oñatiko Santa Ana aretoan, 22:30ean. Gerran erbesteratutako euskal umeen bizipenen gaineko ikuskizuna da.

# ERAKUSKETAK

### OÑATI

► **Jasone Agirre eta bere ikasleen** eskulan erakusketa egongo da kultura etxean hilaren 22ra arte, astegunetan 18:30-20:30 eta aste bukaeretan 12:00-14:00 eta 18:30-20:30.

# JAIAK

### ANTZUOLA

► **Haur dantzarien eguna** izango da etzi, domeka. Honako ekintzak egongo dira: 11:15ean, taldeen kalejira; 12:30ean, dantzaldia Herriko Plazan; eta 17:30ean, talde bakoitzaren dantza saioa Herriko Plazan.

► **Ondarreko jaiak** ospatuko dituzte datorren zapatutik aurrera, hilak 21.

### ARAMAIO

► **Azkoaga auzoko jaiak** izango dira datorren zapatutik aurrera. Ekainaren 21etik 25era izango dira, hain zuzen.

### ELGETA

► ***Euskaldunon Egunkaria*-ren aldeko jaia** egongo da bihar, zapatua. Kirol festa bat egongo da lehenengo, 20:00etan, frontoian. Gainera, Bolo Txapelketa egongo da 23:00etan, eta kontzertuak, gaztetxean, ordu berean.

### ESKORIATZA

► **Luis Ezeiza Eskolak jaia** egingo du bihar, zapatua, bere egoitzan. Goizean antzerki saioak egongo dira; eguerdian, herri bazkaria; arratsaldean umeendako pailazoak eta lantegiak egongo dira eta bukatzeko, dantzaldia.

### OÑATI

► **Udal txistulari banden topaketa eguna** izango da bihar, zapatua. Euskal Honako egitaraua izango dute: 11:30ean, harrera udaletxean; 12:00etan, kalejira; 13:00etan, kontzertua Herriko Plazan, honako egitarauarekin: *Azkoaga* (diana), *Txantxiku* (zortzikoa), *Zoro dantza, Atso zalduteria, Abadiño* (baltza), *Pello Josepe* (rapsodia), *Bizar dantza, Isil isilik,* eta *Gernikako Arbola.* 18:00etan dantzaldia egongo da Herriko Plazan.

# ANTZERKIA

### ARETXABALETA

► **Txotxongilo emanaldia** egingo du Behi Bi-s taldeak eguaztenean, ekainak 18, liburutegian, 18:00etan.

### ELGETA

► **Herriko jaiak iragartzeko kabaret saioa** egongo da datorren egubakoitzean, hilak 20, Kafe Antzokian, 22:30ean.

# Zinema

## ARRASATE

### ■ ALAI ZINEMA

***Chicago***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena eta martitzena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ikuslearen eguna.

### ■ AMAIA ANTZOKIA

***Amen***
Eguena, zine kluba: 21:30.

## OÑATI

### ■ OÑATIKO ZINEA

***Chicago***
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

## EIBAR

### ■ UNZAGA

***El monje***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik eguaztenera: 19:30, 22:15.

### ■ RIALTO

***Condenado***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik martitzenera: 19:30, 22:15.

## GASTEIZ

### ■ GURIDI

***Matrix reloaded***
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

***El monje***
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

***Soy espía***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 22:30.

***Driven***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***Ejecutivo agresivo***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:00, 22:30.

***La vida de David Gale***
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

***El furgón***
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

### ■ MIKELDI ZINEMAK

***Taxi 3***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00.

***Ken park***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***Aquellas juergas universitarias***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***Matrix reloaded***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***X-Men 2***
Egubakoitzetik domekara: 22:45.

***El compromiso***
Egubakoutzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***En un lugar de África***
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 20:00, 22:45.

***El monje***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***Cómo perder a un chico en diez días***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

***La vida de David Gale***
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 20:15, 23:00.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

### ■ FLORIDA-GURIDI

***Torremolinos 73***
Egubakoitzetik domekara: 19:45, 22:30.

***Te quiero para siempre***
Egubakoitzetik domekara: 19:45, 22:30.

***La cámara secreta***
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

***La bici de Ghislain Lambert***
Egubakoitzetik domekara: 17:00.

***Rosa la china***
Egunero: 18:00, 20:15, 22:30.

***En un lugar de África***
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:45, 22:30.

***La herencia***
Egunero: 18:00, 20:15, 22:30.

***Eres mi héroe***
Egubakoitzetik domekara: 17:00.

***Relaciones confidenciales***
Egunero: 18:00, 20:15, 22:30.

***Banpiro txikia***
Zapatua eta domeka: 12:30.

### ■ STER ZINEMAK

***En la oscuridad***
Egubakoitza eta zapatua: 20:05, 21:55, 00:05.
Domeka: 20:05, 21:55.

***Soy espía***
Egubakoitza: 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.
Zapatua: 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.
Domeka: 16:20, 18:20, 20:20, 22:20.

***El monje***
Egubakoitza: 18:25, 20:35, 22:45, 00:55.
Zapatua: 16:15, 18:25, 20:35, 22:45, 00:55.
Domeka: 16:15, 18:25, 20:35, 22:45.

***Matrix reloaded***
Egubakoitza: 18:45, 21:30, 00:15.
Zapatua: 16:00, 18:45, 21:30, 00:15.
Domeka: 16:00, 18:45, 21:30.

***Al filo de la muerte***
Egubakoitza eta zapatua: 20:15, 22:25, 00:30.
Domeka: 20:15, 22:25.

***Esto no es un atraco***
Egubakoitza: 18:20.
Zapatua eta domeka: 16:25, 18:20.

***El libro de la selva 2***
Egubakoitza: 18:10.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:10.

***Los Thornberrys***
Egubakoitza: 18:00.
Zapatua eta domeka: 16:10, 18:00.

***Cómo perder a un chico en diez días***
Egubakoitza: 18:15, 20:35, 22:55, 01:15.
Zapatua: 15:55, 18:15, 20:35, 22:55, 01:15.
Domeka: 15:55, 18:15, 20:35, 22:55.

***Ejecutivo agresivo***
Egubakoitza: 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.
Zapatua: 16:05, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.
Domeka: 16:05, 18:15, 20:25, 22:35.

***Besos de gato***
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:00, 00:00.
Domeka: 20:00, 22:00.

***X-Men 2***
Egubakoitza eta zapatua: 20:00, 22:35, 01:10.
Domeka: 20:00, 22:35.

***El planeta del tesoro***
Egubakoitza: 18:00.
Zapatua eta domeka: 16:00, 18:00.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

### ■ YELMO CINEPLEX

***Matrix reloaded***
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 18:30, 21:30, 00:30.
Domeka: 12:15, 16:00, 19:00, 22:00.

***Relaciones confidenciales***
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.
Domeka: 12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10.

***Eres mi héroe***
Egubakoitza eta zapatua: 22:25, 00:25.
Domeka: 22:25.

***El monje***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00.

***Taxi 3***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.
Domeka: 12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15.

***Condenado***
Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:15, 20:20, 22:25, 00:25.
Domeka: 12:15, 16:10, 18:15, 20:20, 22:25.

***X-Men 2***
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 19:30, 22:15, 00:45.
Domeka: 12:15, 17:00, 19:30, 22:15.

***En el filo de las olas***
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.
Domeka: 12:15, 16:05, 18:05, 20:05, 22:05.

***Ejecutivo agresivo***
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.
Domeka: 12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.

***Al filo de la muerte***
Egubakoitza eta zapatua: 16:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.
Domeka: 12:15, 16:35, 18:35, 20:35, 22:35.

***Soy espía***
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.
Domeka: 12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15.

***Driven***
Egubakoitza eta zapatua: 15:30, 17:45, 20:05, 22:30, 00:50.
Domeka: 12:15, 15:30, 17:45, 20:05, 22:30.

***El libro de la selva 2***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30.
Domeka: 12:15, 16:30.

***La cámara secreta***
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.
Domeka: 12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

***En la oscuridad***
Egubakoitza eta zapatua: 18:45, 20:45, 22:45, 00:45.
Domeka: 12:15, 18:45, 20:45, 22:45.

***El cazador de sueños***
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 19:05.
Domeka: 12:15, 16:05, 19:05.

Astelehena, ikuslearen eguna.

***Chicago:* ●●●● / *En un lugar de África:* ●●● /**

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

# KRITIKA

## TE QUIERO PARA SIEMPRE

PUNTUAZIOA: ●●●

**ZUZENDARIA:** Mads Mikkelsen.
**AKTOREAK:** Sonha Richter, Nikolaj Lje Kaas.

Aste honetako proposamena Danimarkatik datorkigu. *Te quiero para siempre* filmak Donostiako Zinemaldiaren azken ekitaldian parte hartu zuen eta, saririk lortu ez bazuen ere, sail ofizialeko lan interesgarrienen artean zegoen. Zinemaren artifizialtasunarekin apurtu nahi duen Dogma mugimenduaren barruan koka daiteke filma. *Te quiero para siempre* auto istripu batekin hasten da. Istripu horren biktima ezkontzekotan zen mutil gazte bat da. Istripuaren errudunak ama bat eta haren alaba dira. Gertatutakoaren arabera, gaztea paraplegiko geratuko da. Betiko bizitzarekin jarraitzeko gai ez dela ohartzerakoan, emaztegaia haren aldetik urruntzen saiatuko da. Istripua sorrarazi duen familia, berriz, errudun sentituko da, eta bikoteari laguntza eskaini nahi izango dio. Senarra sendagilea da, eta emaztegai gaztea kontsolatu nahi izango du; eta hurbilketa horren ondorioz, bien arteko erakarpena sortuko da.

Akaso, goiko lerroak irakurrita, *Te quiero para siempre*-k mila aldiz ikusitako filma dirudi. Baina badira *dramoi* handietatik bereizten dituen ezaugarriak: gatazkara sosegu handiz hurbiltzen da, pertsonaia guztien ikuspegia azaltzen



saiatzen da, eta horiei lotuta doazen sentimendu nahasiak (amodioa eta sortzen diren aladurak): sendagilearen alde batean, familiarekiko leialtasuna eta betebeharrak daude, eta beste aldean, sortzen ari den amodio berria dago; neska gaztea harrapatuta dago hura mespretxatzen duen senargai paraplegikoaren eta sortutako amodiozko harreman berriaren artean; istripua jasan duen gaztearen nahasketa ere bada; eta alde batera utzita sentitzen diren emaztea eta seme-alabak. Filmak, on eta txarren jokoan erori barik, pertsonaia guztien ikuspuntuak islatzen ditu.

Itxurari dagokionez, filmak etengabe mugitzen den kamera erabiltzen du. Horrek pertsonaien aurpegien hurbileko planoak harrapatzen ditu. Eta kamera hain gertu edukita, aktoreen lanak oso neurtuta egon behar du. Hori oso ondo eginda dago, eta, horren ondorioz, lortzen den emaitza zehatz eta egiazko moduan ondo kontatutako istorioa da.

ANTONIO ZABALA

SARE İNMO f3 inmobiliaria
Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

**SALGAI**

**ARRASATE**
- 98 m², 4 logela, oso eguzkitsua eta garajearekin.
- 85 m². Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Goian 8 ganbara dauzka. Erdialdean.
- 69 m². Logela bi, egongela, sukaldea, bainugela eta sotoa. Guztiz berritua.

**BERGARA**
- 70 m². Erdialdean. Bi logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Oso eguzkitsua.

**ANTZUOLA**
- 75 m². Orain dela bost urte guztiz berrituta: leihoak, berogailua... Hiru logela, egongela eta bainugela. Ganbara dauka.

**ERRENTAN**

**OÑATI**
- Hiru logela, egongela, sukaldea (hornituta) eta bainugela.

**Ikasleendako hainbat etxebizitza ematen dira errentan**

ESKAERA HANDIAGATIK ETXEBIZITZAK BEHAR DITUGU SALGAI EDO ALOKAGAI.

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

**ANTZUOLA / Eraikitzen ari diren elkarri lotutako etxeak**
276.465,57 euro (46 milioi).
Semisotoa. Garaje handia eta txokoa.
Beheko solairuan: sukaldea, jangela, egongela, bainugela.
Lehen solairuan: hiru edo lau logela eta bi bainugela.
Teilatupeko solairua: m² ugari egokitzeko moduan.

**BERGARA / Etxebizitzak salgai**
- Arane erreka. 87 m² erabilgarri. Trastelekua. Oso ondo dago.
- Zubiaurren. 60 m².
- Osintxun. 99 m².Ganbara, 24 m². Berrizteko.

**BERGARA / Tabernak salgai eta errentan**

**BERGARA / Lokalak salgai eta errentan**

**BASERRIAK**
- Angiozar: 200 m² x 3 solairu, 38.000 m²-ko lursaila, oso ondo kokatua.
- Ormaiztegin, Osintxun bi baserri, Berastegi (baserria eta borda), Mutiloan, Elosun, Zegaman, Asteasun, Bedoñan.

**Etxebizitzak eta lokalak salgai edo alokagai behar ditugu.**

ARETXABALETA
**TABERNA, HARATEGIA ETA PLATER KONBINATUAK DITUEN LOKALA SALGAI.**
**943 77 03 08**

# 1/ ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai Andra Mari auzoan. 73m². Berrituta. Gas berogailua du eta oso eguzkitsua da. 10m²-ko trastelekua du. 207.000 euro. Ikusi gura duenak dei dezala. 646 35 80 57.

**Aretxabaleta.** Etxebizitza salgai. 96 m2. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela bi. Ganbara du. 607 49 83 50.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Erguin auzoan. 90 m2. 637 86 88 79.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai San Josepe kalean. 65 m². Hiru logela. Guztiz berrituta. Igogailua. 943 77 16 19 edo 676 05 53 40.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Osintxun. 98 m². Bost logela. Ganbara. Berritzeko. 943 76 19 08.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zubiaurren. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Maria Jesus. 943 76 71 12.

**Eskoriatza.** Etxebizitza ia berria salgai Intxaurtxuetan. Igogailua eta berogailua ditu. Eguzkitsua. 943 79 12 98 edo 680 48 94 04.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Etxebizitza ematen da errentan erdialdean. 943 79 32 64.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Musakola auzoan. Hiru logela. Guztiz hornituta. 635 70 04 88.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan San Andres auzoan. 943 53 25 74.

**Benidorm.** Apartamentua ematen da errentan, irailean, Levante hondartzan. Lehenengo hamabostaldia: 420 euro; bigarrena: 360 euro. 945 21 34 70.

**Benidorm.** Apartamentua ematen da errentan. Logela bi. Hondartzatik gertu. 630 41 84 65.

OÑATI
**PERTSONA BAT BEHAR DA KAFETEGI BATEN LUZAROAN LAN EGITEKO.**
**943 78 30 59.**

**Benidorm.** Estudioa ematen da errentan Rincon de Eloysen. Itsasotik 250 metrora. 626 61 77 12.

**Donostia.** Etxebizitza ematen da errentan abuztuko bigarren hamabostaldirako. Zurriolatik oso-oso gertu. 943 77 21 28.

**Donostia.** Etxebizitza ematen da errentan Antigua auzoan, udan. 656 71 06 09.

**Peñiscola** (Castello). Apartamentua ematen da errentan, uztailean. Hondartzatik gertu. Aparkalekua eta igerilekua ditu. 943 79 48 82.

**Santa Pola** (Alacant). Bungalowa ematen da errentan, abuztuan. 636 12 57 00.

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxe txiki bat edo atiko bat hartuko nuke errentan. 605 76 08 29.

**Arrasate.** Lau logelako etxebizitza hartu gura du errentan ikasle talde batek. 647 81 68 08.

**Atikoa** edo apartamentua hartuko nuke errentan Debagoienean. Amaia. 637 58 78 11.

## 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Erdialdean neska edo mutil bat behar da etxebizitza osatzeko. Abendura arte. 659 01 05 84.

# 2/ GARAJEAK

## 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garajea salgai Errekabarren kalean. Auto birendako lekua. 606 83 95 32.

## 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Garajea ematen da errentan Ibargarai hiribidean. 18 m2. 943 76 37 09.

**Bergara.** Garajea ematen da errentan Zurraderon, lehen solairuan. 607 46 83 37.

## 204. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaletan.** Garajea hartuko nuke errentan. 943 71 20 57.

# 4/ LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Emakumea behar da umea zaintzeko. 21:00etatik aurrera deitu. 669 01 61 94.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da umea zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 679 45 03 56.

**Bergara.** Arrandegi baten lan egiteko pertsona bat behar da. 607 66 02 44.

**Bergara.** Pertsona bat behar da goizetan etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. 627 53 78 61.

## 402. ESKAERAK

Garbi S.L.

**PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.**
**943 33 18 37 (HERNANI)**
**649 84 67 09 (BERGARA)**

**Arrasate.** Emakumea gertu orduka garbiketa lanak egiteko goizez zein arratsaldez. 649 55 64 85.

**Bergara.** Etxeko lanak egiten eta umeak zaintzen lan egingo nuke. 600 71 43 07.

**Debagoiena.** Arratsaldeetan lan egiteko gertu nago. Arratsaldez edo gauez deitu. 679 50 01 33.

**Debagoiena.** Neska gertu taberna batean garbiketa lanak egiteko. Maite. 615 75 30 53.

# 5/ IRAKASKUNTZA

## 502. EMAN

**Arrasate.** Heziketa Berezian espezializatutako psikologoak laguntza eskolak emango lituzke, uztailean. 635 70 88 88.

**Arrasate.** Neska ingeles batek maila guztietako ingelesezko eskolak emango lituzke. 943 79 86 28.

**Oñati.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen dira. 616 45 23 99.

# 6/ MOTORRA

## 601. SALDU

**Aprilia** SR 50 motoa salgai. 360 euro. Ondo dago. 619 28 63 36.

**BMW** Trail FS-650 motoa salgai. Ondo dago. 20:00etatik aurrera deitu. 605 76 71 70.

**Citroën** Xsara autoa salgai. Bi urte eta erdi ditu, eta sei hilabeteko bermea. 25.000 Km, lau aire-zaku, aire girotua, tindatutako beirak, ABS, 110 ZP. 656 73 13 21.

**Opel** Kadett autoa salgai. Matrikula: SS-AF. 84.000 Km. Estrak ditu. 1.300 euro. 943 76 63 02.

**Opel** Vectra 2.000 Injection salgai. Gasolinazkoa. Matrikula: VI-N. Itxitura zentralizatua. 1.000 euro. Goizez edo gauez deitu. 943 79 25 10.

**Volkswagen** California 2.4D autoa salgai. 626 19 30 28.

# 8/ DENETARIK

## 801. SALDU

**Oñati.** Txabola salgai, 10.000 metro koadroko lursailarekin. Bidea dago bertaraino eta ura sartuta dauka. 72.000 euro. 616 00 34 29.

## 806. GALDU

**Antzuola.** Txakurra galdu zaigu Uzarraga auzoan. Kanela kolorekoa da, txikia, eta Argi izena du. 943 76 62 97.

LAN ESKAINTZA

**Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak**

**PUBLIZITATE KUDEATZAILEA**

**behar du aldi baterako lan egiteko.**

Baldintzak:
- Euskaraz ondo jakitea.
- Gidabaimena edukitzea.
- Debagoiena ezagutzea.

- Esperientzia izatea kontuan hartuko da.

Interesatuok bidali curriculuma helbide honetara:
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Nafarroa etorbidea 2
20500 ARRASATE
edo posta elektronikoz:
admi@goiena.com
Curriculumak aurkezteko azken eguna:
**2003ko ekainaren 20a**

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

LAN ESKAINTZA

**Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak**

**MAKETATZAILEA**

**behar du aldi baterako lan egiteko.**

Baldintzak:
- Euskaraz jakitea.
- QuarkXPress, Photoshop eta FreeHand programak ondo ezagutzea.

- Esperientzia izatea kontuan hartuko da.

Interesatuok bidali curriculuma helbide honetara:
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Nafarroa etorbidea 2
20500 ARRASATE

edo posta elektronikoz:
admi@goiena.com
Curriculumak aurkezteko azken eguna:
**2003ko ekainaren 20a**

Goiena Komunikazio Zerbitzuak



CG CONSULTORIO GINECOLOGICO
Talde osoa emakumearen eskura

Jaioaurreko diagnostikoa-ekografia ........ Antonio Estomba
Menopausia ........ Fernando Cristóbal
Endoskopia ginekologikoa ........ Alfredo Otalora
Laguntza bidezko ugalketa ........ Jose M. Gómez
Ainhoa Larrea
Titietako gaixotasunak ........ Domingo Murgiondo
Obstetrizia ........ Miguel Gabarain
Psikosexualitatea ........ Maria José Ruiz
Nerabezaroko ginekologia ........ Fatima Azkue
Hezur dentsitometria ........ J. Rodríguez

**Arrasateko kontsultategia:**
**Zerkaosteta 17, behea**
**Tel.: 943 79 20 18**

Policlinica Gipuzkoa

Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88

## AIPAGARRI

### Mikel Maniega

BERGARA



Pin Pan Pun Band! talde sortu berrian tronpeta jotzen du Mikel Maniegak. Etsaiak taldeko Auo abeslariak sortu du 14 musikariz osatutako talde hori, eta duela aste gutxi kaleratu zuten lehen diskoa, *1. bol.* izenekoa. Mikelek Bergarako Udal Musika Bandan eta Orkestran ere jotzen du.

### Hodei Lazpita

ARETXABALETA



Joan zen zapatuan jokatu zuten Euskadiko Errekortadoreen Txapelketa Bergaran, Pazkoa jaietan. Hodei Lazpita aretxabaletarrak errekorterik artistikoenaren saria jaso zuen; gero, baina, zezenak harrapatu egin zuen, izterretik sartu zion adarra eta ospitalean dago, nahiz eta ez dagoen larri.

### Iban Margusino

ARRASATE



Gainean ditugu dagoeneko San Joan jaiak, eta urtero moduan, lehiaketa bidez aukeratu dute jaiak iragarriko dituen kartela. Zazpi lan jaso zituzten guztira, eta Iban Margusinorena aukeratu zuten. San Joan sua da kartelaren osagai ia bakarra, eta ordenagailuz egin du kartela.

## HILDAKOAK

**Carmen Fernández Fernández.** Eskoriatzan, ekainaren 1ean. 79 urte.
**Julian Uriarte Eskibel.** Aretxabaletan, ekainaren 3an. 82 urte.
**Maxima Aldai Otadui.** Bergaran, ekainaren 4an. 87 urte.
**Juliana Aierbe Zurutuza.** Bergaran, ekainaren 5ean. 95 urte.
**Maria Altube Martínez de Albeniz.** Oñatin, 5ean. 96 urte.
**Celso Miguélez Alonso.** Arrasaten, ekainaren 6an. 71 urte.
**Jon Maria Ezpeleta Ibarra.** Bergaran, ekainaren 6an. 72 urte.
**Emiliana Errazkia Jauregi.** Arrasaten, ekainaren 10ean. 76 urte.
**Emeterio Gabilondo Gabilondo.** Elosuan, 10ean. 79 urte.
**Marisa Agirre Untzila.** Bergaran, ekainaren 10ean. 49 urte.



**Maider Hernández Baños**
Eskoriatza • Maiatzaren 30a • 2,950 Kg. Gurasoak: **Maite Baños** (Arrasate) eta **Manolo Hernández** (Aretxabaleta). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Gorka García Lana**
Elorrio • Maiatzaren 31a • 3,100 Kg. Gurasoak: **Marina Lana** (Arrasate) eta **Jabi García** (Berriz). Argazkian, umea aitarekin eta amarekin.



**Nahia Méndez Cabrales**
Eskoriatza • Ekainaren 1a • 2,450 Kg. Gurasoak: **Jabi Méndez** (Bergara) eta **Mari Mar Cabrales** (Arrasate). Argazkian, umea gurasoekin.



**Uxue Barrutia Ezpeleta**
Arrasate • Ekainaren 4a • 3,800 Kg. Gurasoak: **Garikoitz Barrutia** (Arrasate) eta **Zuriñe Ezpeleta** (Arrasate). Argazkian, umea amarekin.

### URTEURRENA

**Kontxita**
**Mujika Garmendia**



Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 15ean, 12:30ean, **Bergara**ko San Pedron.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*



**Ander Zuloaga Vázquez**
Aretxabaleta • Ekainaren 6a • 3,850 Kg. Gurasoak: **Joseba Zuloaga** (Donostia) eta **Miriam Vázquez** (Aretxabaleta). Argazkian, umea gurasoekin.



**Unai Iribar Gallastegi**
Soraluze • Ekainaren 6a • 3,650 Kg. Gurasoak: **Xabier Iribar** (Soraluze) eta **Monika Gallastegi** (Bergara). Argazkian, umea amaren besoetan.



**Jose Antonio Imazek** eta **Ramoni Sáezek** 50 urte bete zituzten ezkonduta maiatzaren 21ean. Nafarrak dira biak, Olazagutiakoak, baina urte asko egin dituzte Bergaran. Harategia jarri zuten hemen, eta 45 urtez egin zuten lan hantxe. Zorionak, bikote, familia osoaren partetik!

### III. URTEURRENA

**Tomas**
**Letona Arejolaleiba**



Hirugarren urteurreneko meza domekan, ekainaren 15ean, 11:30ean, **Arrasate**ko Uribarriko elizan

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

**Clara**
**Goikoetxea Madina**



Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 15ean, 12:30ean, **Bergara**ko San Pedron.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### URTEURRENA

**Ramon**
**Solana Azkarate**



Lehen urteurreneko meza domekan, ekainaren 15ean, 12:30ean, **Bergara**ko San Pedron.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

### ESKER ONA

**Julian**
**Uriarte Esquivel**



**Aretxabaleta**n hil zen 2003ko ekainaren 3an, 82 urte zituela.

*Goizetik gabera txapela buruan*
*egunero egunero ibili munduan*
*orain dagoeneko nonbait zeruan*
*eta zuk emandako guztia*
*betiko gure barruan*
*Agur eta eskerrik asko aitita*

### ESKER ONA

**Maria**
**Gurrutxaga Lizarralde**



**Bergara**n hil zen 2003ko ekainaren 1ean, 93 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

### ESKER ONA

**Jon**
**Ezpeleta Ibarra**

**Bergara**n hil zen 2003ko ekainaren 6an, 72 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

## ASTEBUKAERAKO EGURALDIA

Oskarbi · Ostarteak · Estalia · Euri txikia · Euria · Zaparradak · Ekaitza · Txingorra · Elurra · Behelainoa

**ZAPATUA, 14**

Lainoak eta ostarteak tartekatuko dira, eta arratsaldean lainoak nagusituko dira. Litekeena da ekaitza egitea. Tenperaturak gora egingo du. Haizea aldakor ibiliko da.

**Nafarroako Erribera:** Egun eguzkitsua.
**Errioxa:** Eguzkitsua.
**Pirinioak:** Eguzkitsua.

**DOMEKA, 15**

Goizean ez dugu laino askorik izango, baina arratsalderako lainoak nagusituko zaizkigu eta ekaitza egingo du. Tenperaturak behera egingo du eta ipar-haizea ibiliko da.

**Nafarroako Erribera:** Egun eguzkitsua.
**Errioxa:** Ostarteak.
**Pirinioak:** Ostarteak.

ASTEKO BATEZ BESTEKO TENPERATURA

**21,6º C**

ILARGIAREN ALDIAK: EKAINA

| ilgora | ilbete | ilbehera | ilberri |
|---|---|---|---|
| 7 | 14 | 21 | 29 |

EGUZKIA: EKAINAREN 15a

Sortu 06:27 · Gorde 21:50

## URKULUKO URTEGIA

**Urkuluko urtegian ere izan du eraginik azkeneko asteotako eguraldiak: beroa eta euri gutxi, zaparrada batzuk izan ditugun arren. Urtegiko ur maila %87 da.**

**% 87**

## BEHARREZKO TELEFONOAK

**((112)) SOS DEIAK**

### OSASUNA / LARRIALDIAK

| | |
|---|---|
| OSAKIDETZA (Larrial.) | 943 46 11 11 |
| DYA (Orokorra) | 943 46 46 22 |
| DYA ( Antzuola) | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Ertzaintza | |
| Arrasate | 943 79 71 99 |
| Bergara | 943 76 53 40 |
| Osasun Etxeak | |
| Arrasateko Ospital. | 943 03 53 00 |
| Antzuola | 943 76 62 23 |
| Aramaio | 945 44 53 40 |
| Aretxabaleta | 943 71 19 59 |
| Bergara | 943 76 24 40 |
| Elgeta | 943 78 90 27 |
| Eskoriatza | 943 71 44 52 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 03 54 30 |
| Hies Ekimena | 943 79 26 99 |
| Udaltzaingoak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 14 39 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 63 |
| Bergara | 943 77 91 06 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

### GARRAIOAK

| | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | |
| Arrasate | 943 79 12 22 |
| Aramaio | 945 44 50 33 |
| Aretxabaleta | 943 79 22 33 |
| Bergara | 943 79 12 22 |
| Eskoriatza | 943 71 40 59 |
| Oñati | 943 78 03 65 |
| RENFE | 943 28 35 99 |

### DEBAGOIENA

| | |
|---|---|
| Mankomunitatea | 943 79 33 99 |
| Hiltegia (Zubillaga) | 943 78 21 93 |
| Mendi nekazaritza elk. | 943 76 25 47 |
| Nekazaritza Ganbera | 943 76 10 15 |
| Zerga Bulegoa | 943 76 58 63 |
| Euskara Taldeak | |
| Debagune | 943 77 12 28 |
| AED / Arrasate | 943 77 12 28 |
| Loramendi / Aretx. | 943 77 09 70 |
| Jardun / Bergara | 943 76 08 19 |
| Axtroki / Eskoriatza | 943 71 54 34 |
| Laixan / Oñati | 943 71 63 11 |
| Hondakindegi Alternatiboak | |
| Arrasate | 943 77 11 43 |
| Bergara | 945 76 44 42 |
| Oñati | 943 78 36 67 |
| Kiroldegiak | |
| Aramaio | 945 44 53 35 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Bergara | 943 76 56 41 |
| Elgeta | 943 76 82 84 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |
| Kultura Etxeak | |
| Antzuola | 943 76 60 65 |
| Arrasate | 943 77 01 05 |
| Aretxabaleta | 943 71 10 27 |
| Bergara | 943 77 91 58 |
| Eskoriatza | 943 71 46 88 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 03 53 |
| Udalak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 09 00 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 62 |
| Bergara | 943 77 91 00 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

## EUSKARAZKO HEDABIDEAK

| | |
|---|---|
| GOITB | 943 71 23 96 • goitb@ goiena.com |
| Goienkaria | 943 76 92 71 • goienkaria@goiena.com |
| Arrasate Press | 943 71 25 11 • arrasatepress@goiena.com |
| Berrigara | 943 76 03 97 • berrigara@goiena.com |
| Aretxagazeta | 943 79 86 21 • aretxagazeta@goiena.com |
| Goibekokale | 943 76 92 71 • goibekokale@goiena.com |
| Kontuola | 943 76 03 97 • kontuola@goiena.com |
| Txirritola | 943 71 25 11 • txirritola@goiena.com |
| Ze barri? | 943 79 86 21 • zebarri@goiena.com |
| Kontzejupetik | 943 78 26 17 • kontzejupetik@oinati.net |
| Putz | 943 79 42 30 • putz@euskalnet.net |
| Arrasate Irratia | 943 71 17 31 • irratia@goiena.com |
| Oñati Irratia | 943 78 26 17 • irratia@oinati.net |
| Sustatu.com | 943 76 92 71 • sustatu@sustatu.com |

*Erakunde hauen laguntzaz*

Gipuzkoako Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritza

**Antzuolako Udala**
**Aramaioko Udala**
**Aretxabaletako Udala**
**Arrasateko Udala**
**Bergarako Udala**
**Elgetako Udala**
**Eskoriatzako Udala**
**Leintz Gatzagako Udala**
**Oñatiko Udala**

TRUK EUSKAL LINGE

TOALLA-JOKOA
3 TOALLAZ OSATUTAKO JOKOA:



• 35x50, 50x100, 70x140
• Koloreak: granatea, berdea, horia, urdina
• 100% kotoia
• 500 gr. m2

28 €

MAHAI-ZAPIAK



• 100% kotoia • Kolore urdina, gorria eta berdea
• Amantal jokoa 160x200 eta sei aho-zapi

47 €

Amantal jokoa 150x250 eta zortzi aho-zapi

58 €



deitu!

DEI IEZAGUZU ETA EGUN GUTXI BARRU
ZURE ETXEAN

3,69 €
BIDALKETA GASTUAK

TRUK
902 45 12 12
IRUÑEA • EUSKAL HERRIA

## HITZGEZIDUNAK

Luma



Basatia
* Izena
Beldurturik
Modua
Ogi egile
Asiako estatua
E birritan
Garai berekoa
Erretegia
Emaitza
* Deitura
Non atzizkia
Ogi, hitz elkarketan
Jainko egiptoarra
Araztua
Bibliako pertsonaia
Euskal aurrizkia
Uztaia
Igarobidea
Ez zuzen
Kontso. bikoitza
Kaiak
Naizen honek
50
Iridioa
Polit
Aintzira
Norat atzizkia
Sufrea
Nori atzizkia
Bokala
Potasioa
Elaiak
Halere
10
Kontsonantea

## BILABILA7





## UMOREGIROAN/ Pedro Zelaia

Pedro Zelaiak argitaratutako txiste bilduma-liburutik hartuta.

**KRISI DENBORAN**

Alkartu ziran bi ugazaba eibartar eta, krisia gora, krisia bera, bazebilen berbetan.

Gauzak estu, itxura danez. Biarra egin gura eta biarrik ez. Eitxen dan biarra, barriz, kobrau eziñ. Eta, gaiñera, jakin barik ilunaldi au inoiz amaitxuko san.

Batek diño:

- Nik 20 biargiñ jaukadaz eta zelan bihar kontu au arreglau, pentsau ta pentsau, gabetan begirik be etxuat itxitzen.

Eta bestiak:

- Ara, ba, nik 40 biargiñ jaukadaz eta etorkizunari begira aiñ illun gauzak ikusten jitxuadaz-eze, begixak pegauta moduan jaukadaz lorik ezin-einda.

Onetan zegozela, etorri jakue ugazaba bat. Onek 200 biargiñ zeukazen. Galdetu zutsen beste bixak:

- Ik be eztok ba lo asko eingo gaurko giro beltz onekin!

Ta onek erantzun zetsen:

- Ara, ba, nik ume baten moduan lo eitxen juat.

- Ume baten moduan? Zela leikek?

- Erraza, mutilak. Alako ardura aundixakin oera juaten nok, eze, ordubetetik ordubetera, esnatu eitxen nok. Esnatu, negar eiñ eta barriz luak artu. Eta olaxe ordu guztietan.

## EZETZASMATU!

Estepan Plazaola



### Zenbat dira Debagoienean lan egin eta kanpoan bizi direnak?

Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako Debagoieneko Lurraldearen Zatiko Planean, eskualdean etxebizitza berri gehiago egin beharra azpimarratzen da. Horretarako arrazoietako bat, Debagoienean lan egiten duten asko eta asko kanpoan bizi direla, eta horiei bertan bizitzeko aukera egokia eskaini behar zaiela. Asmatuko ote zenuke zenbat diren, planaren arabera, gaur egun kanpoan bizi eta Debagoienean lan egiten dutenak?

- 7.500
- 3.000
- 1.000
- 1.500

**Erantzun zuzena:** 3.000.

## SOLUZIOAK





| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | • | A | • | I | • |
| | | | E | N | E | K | O |
| | | | • | I | R | A | K |
| • | G | • | E | M | A | R | I |
| L | A | B | E | A | • | A | N |
| • | R | A | • | L | O | T | • |
| G | A | R | B | I | T | U | A |
| • | I | B | I | A | • | R | R |
| O | K | E | R | • | N | I | K |
| • | I | R | • | L | A | K | U |
| E | D | E | R | • | S | • | A |
| • | E | N | A | R | A | K | • |
| H | A | A | T | I | K | • | X |

## ASTEKOHOROSKOPOA

Gipuzkoako Astrologi Elkartea

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*
Lan-kontu berriak izango dituzu berehalaxe, aurrez ipini zenuen jomugara heldu zara-eta. Horretarako, behar-beharrezkoa duzu hausnartzeko astia hartzea, zure hurrengo helburuak finkatu ahal izateko. Hausnartu, presa barik.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*
Une honetan, zure ingurukoekin ez duzu hartu-eman onik. Zergatik? Uste duzulako jendeak uler zaitzakeela zuk ezer gutxi esan barik, berba egin barik. Komunika zaitez, berba egin ezazu, jendea ez da igarlea.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*
Lan-baldintzen hobetzea, soldatan eta karguan, mailaz igoko zaituzte-eta. Buruan dituzun ideia on horiek praktikan jar itzazu, emaitza ezin hobeak lortuko dituzu-eta.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*
Estres handia izango duzu lanean; zure lankideek ardura ugari ipiniko dituzte zugan. Horregatik, lanez gainezka izango zara. Saia zaitez hasierahasieratik gauzak argi uzten, nork bere lana egin dezan, eta, horrela, zu lasaiago egon zaitezen.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*
Bolada ona amodioari dagokionez; une egokia izan daiteke bikotekidearekin oraintsu izan dituzun gaizki-ulertzeak argitzeko. Bikotekiderik ez dutenendako, hau ere une egokia da lanean pertsona atsegin bat ezagutzeko eta harekin harreman polita hasteko.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*
Lanean arazoak izango dituzu, kontzentrazio falta dela-eta. Horrek eragingo du akats bat baino gehiago egitea, eta, horren ondorioz, errieta egingo dizute. Bitaminak hartzea komeni zaizu, ohikoa baino nekatuago egongo zara-eta.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*
Lana erruz izango duzu; hori dela eta, familiakoekin denbora laburragoa igaro ahal izateaz gainera, hartu-emana ere hoztu egingo da. Edozelan ere, esfortzu horrek merezi izango du, aspaldotik espero zenituen emaitza onak lortuko dituzu-eta.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*
Buruan dituzun proiektuak atzeratu egingo dira; hori dela eta, ohikoa baino haserrekorrago jardungo duzu eta zure ingurukoei eragingo die. Zutaz aldenduko dira. Ez larritu atzerapen horiengatik, eta aprobetxa ezazu gaizki egindakoak zuzentzeko.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*
Zure etxearekin zerikusia duen gastua, espero ez zenuena, egin beharko duzu, eta oraingo hileko aurrekontuak kolpe ederra jasoko du. Bestalde, zure lagun batek lan-proposamena egingo dizu, oso interesgarria eta oso gozagarria diruari dagokionez. Horrek asko lagunduko du zure ekonomia orekatze aldera.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*
Nahiko aste lasaia. Aprobetxa dezakezu mediku-azterketa egiteko, eta, horrela, tripetako eta eztarriko arazoak konpondu ahal izateko. Aukera izan dezakezu familiarekin bidaia bat egiteko.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*
Oraingo astean, nahiz eta jende ugari egon zure aldamenean, bakar-bakarrik sentituko zara. Bestalde, lan handia izango duzu, eta horrek galarazi egingo dizu horrenbeste desio zenituen oporrak hartzea. Edozelan ere, ez zaitez behera etorri azken kontu horregatik, lanean lortuko dituzun emaitzek konpentsatu egingo dute-eta.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*
Norbaitek "negozio interesgarria" proposatuko dizu. Itxura denez, oso gutxi inbertituta diru ugari irabaziko duzu negozio horrekin. Baina kontuz! Guztia ez da-eta urre izango , ezta gutxiago ere! Ondo aztertu beharko dituzu egingo dizuten proposamen guztiak, ia guztiak iruzurrak izango dira-eta.

GIPUZKOAKO ASTROLOGI ELKARTEA



## Luar Na Lubre kontzertuan
EGUAZTENA / **20:30**

### Luar Na Lubre talde galiziarra kontzertuan

Luar Na Lubre talde galiziarrak kontzertua eskaini zuen Bergarako jaietan. Bada, kontzertua ikusteko eta entzuteko aukerarik izan ez zenutenok, Goiena Telebistan izango duzue aukera. Eguaztenean eskainiko dizuegu, 20:30ean.



## Udalbatzen osaketa
ZAPATUA / **11:30-13:30**

### Udalbatzak osatuko dituzte ibarrean bihar, zapatua

Orain dela astebete aurreratu genizuen udalbatza berrien osaketak eskainiko genizkizuela GOITBn. Ordutegian, baina, aldaketa bat egongo da: saioa 11:30ean hasiko da, eta ez 12:00etan, aurreko astean esan genuenez.




## Reala 'Harmailatik' saioan
ASTELEHENA / **20:30**

### Zortzi mila zale baino gehiago Vigon eta GOITBn

Realak Vigon jokatuko duen partiduaren gaineko erreportaje berezia eskainiko dizuegu *Harmailatik* saioan. Julen Iriondo kazetariak Realzaleekin egingo du bidaia Vigora. Gainera, Arrasateko Uarkapen ere egongo gara.



## 'Sarrera doan'
DOMEKA / **14:30**

### Arrasateko gaztetxean 70eko hamarkadako festa

Asteburuan Arrasateko gaztetxearen gaineko erreportajea ikusteko aukera izango duzue *Sarrera doan* saioan. 70eko hamarkadako festa antolatu dute gaztetxean, eta horren berri ere emango dizue Amagoia Lasagabasterrek.

## TELEBERRIAK

### Denak Realarekin, baita telebista kateak ere

Ia 10.000 jarraitzaile izango ditu Realak domekan Vigoko Balaidosen. Hara joaterik ez dutenak telebistan ikusi ahal izango dute, Canal+ kateak Celtaren eta Realaren arteko partidua zuzenean eskainiko du-eta. Ordaineko katea etxean ez dutenek taberna eta elkarteetan ikusteko aukera izango dute. Inoiz baino beteago egongo dira domeka gauean Gipuzkoa osoko tabernak, ziur. Realak Liga txapelketa eskuratzeko aukera handiak dituela-eta, telebista kateak hasi dira saio bereziak eskaintzen txuri-urdinen gainean. ETB2k, esaterako, *A por todas* izeneko bereziaren lehenengo atala eskaini zuen eguenean. Realeko jokalariak gertuagotik ezagutzeko, zaleen iritziak jasotzeko…. Txuri-urdinek bizi duten egoera bereziaren gaineko gora-behera guztiak ikusi ahal izan genituen Orio produkzioak ekoiztutako erreportaje berezian. GOITBk ere tarte berezia eskainiko dio astelehenneko *Harmailatik* saioan: Julen Iriondo aurkezlea Vigora doa, eta han jasotako irudi eta iritziekin erreportaje berezia osatuko du. Astelehenean ikusiko dugu.

### Agur 'Hotel Glam' saioari

Telezaborra, ikuskizun lotsagarria, higuingarria… Horrelako berbak entzun ditugu T5 kateko *Hotel Glam* saioaren gainean. Hainbat astean telebistako saio ikusiena izan denak agur esan digu behingoz. Atzo, eguena, aukeratu zuten ikus-entzuleek irabazlea.

## ASTEKOPROGRAMAZIOA/ Ekainaren 13tik 19ra

Goitb Goiena Telebista

| EGUBAKOITZA 13 | ZAPATUA 14 | DOMEKA 15 | ASTELEHENA 16 | MARTITZENA 17 | EGUAZTENA 18 | EGUENA 19 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Sarrera doan**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Iluntzean**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br><br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Astebete**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Soinuz Blai**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Astebete**<br>23:00 **Emisio amaiera** | 11:30 **Udalbatza berrien osaketa**<br>13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Iparrorratza**<br>14:30 **Sarrera doan**<br>15:00 **Iluntzean**<br>15:30 **Soinuz Blai**<br>16:00 **Astebete**<br>16:30 **Emisio amaiera** | 11:30 **Udalbatza berrien osaketa**<br>13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Iparrorratza**<br>14:30 **Sarrera doan**<br>15:00 **Iluntzean**<br>15:30 **Soinuz Blai**<br>16:00 **Astebete**<br>16:30 **Emisio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Astebete**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Soinuz blai**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:30 **Emisio amaiera**<br><br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Harmailatik**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Harmailatik tertulia**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Harmailatik**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Harmailatik tertulia**<br>23:45 **Emisio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Harmailatik**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Harmailatik tertulia**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:15 **Emisio amaiera**<br><br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Iparrorratza**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Soinuz Blai**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Iparrorratza**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Soinuz Blai**<br>23:45 **Emisio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Iparrorratza**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Soinuz Blai**<br>15:30 **Berriak**<br>16:00 **Gatza eta berakatza**<br>16:15 **Emisio amaiera**<br><br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 Kontzertua: **Luar Na Lubre**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Kontzertua: Luar Na Lubre**<br>24:00 **Gatza eta berakatza**<br>24:15 **Emizio amaiera** | 13:30 **Gatza eta berakatza**<br>14:00 **Gezi bideak**<br>14:30 **Berriak**<br>15:00 **Kontzertua: Luar Na Lubre**<br>16:30 **Berriak**<br>17:00 **Gatza eta berakatza**<br>17:15 **Emisio amaiera**<br><br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Sarrera doan**<br>21:00 **Gaurkoak**<br>21:15 **Iluntzean**<br>21:45 **Gatza eta berakatza**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Sarrera doan**<br>23:00 **Gaurkoak**<br>23:15 **Iluntzean**<br>23:45 **Emisio amaiera** |
| 20:30<br>**Astebete** | 11:30<br>**Udalbatza berriak** | 15:00<br>**Iluntzean** | 21:15<br>**Harmailatik tertulia** | 20:30<br>**Iparrorratza** | 20:30<br>**Luar Na Lubre** | 21:15<br>**Iluntzean** |

**GOIENA TELEBISTA /** Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

## KAMERAAURREAN



*"Azken bi partiduak oso zailak izango dira, baina Realak Vigon irabaziz gero liga erdi eskuan izango du. Arrasaten, behintzat, festa handia egingo dugu".*

**Bittor Arriaran /** Bonba taldie
'BERRIAK' (2003-06-11)



*"Errekortadore txapelketetan zezenak ez du minik hartzen. Hala ere, ni prest nago zezenketen kontra dagoenarekin eztabaida publikoa egiteko".*

**Iñigo Almortza /** Zezenzale bergararra
'BERGARAKO JAIAK' ALBISTEGIA (2003-06-10)

## TELEBEGI/ Unai Loidi

# *Soinuak eta irudiak*

Gauerditik aurrera telebistari begira gelditzeak *zapping* egiteko arrisku handiagoa dakar. Publizitate merkea kate batean; bestean, gero eta jasangaitzago dauden martiztarrak; hurrengoan, bukatzeko gutxi falta duen filmen bat… Eta minutuko zortzi katetik gorako *zapping*-abiada daukanak seguru harrapatuko du *Eguneko Irudiak* ETBn. Beti gustatu izan zaizkit honelako tarteak, bere laburrean, egunari errepasoa egiten diotelako albisterik esanguratsuenekin.

Kazetariaren ahotsik barik, irudiek eta giro-soinuak daukate nagusitasuna, pantailaren barrenean titular gisa idatzitako testu labur batekin. Harrapatzen dudan bakoitzean, ikusten gelditzen naiz. Gustura gainera. Baina gusturago ikusiko nuke, begiko minik gabe, idatzizko testu horietan akatsik ez balego: akats ortografikoak, sintaktikoak, gramatikalak… Barkaezinak. Erdarazko bertsioan, ETB2n, ez dut sekula horrelako akatsik ikusi.




**RENAULT Kontzesionarioa**

## AUTOBERRI

San Andres auzoa, 8 · Tel.: 943 712 472

ARRASATE

**LAGUN ARO**
SEGUROS - ASEGURUAK
Pensando en ti

**LAGUN ARO ASEGURUAK** enpresak, Euskadiko Kutxa taldean eta **MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA (MCC)** barnean dagoena, bere zabalkuntza planaren barruan honakoak behar ditu:

**KUDEATZAILE KOMERTZIALAK** **ARRASATE // GASTEIZ**
**Ref 322-03** **Ref 324 –03**

Bezerorenganako arreta zerbitzu osoak egingo dituzte; merkatari lanak zein ekoizpeneko eta ezbeharretarako funtzio administratiboak.

Lanpostu horretarako egokiak izango dira erdi mailako ikasketak egin dituzten pertsonak, salmentarako sena dutenak eta gutxienez urte beteko esperientzia dutenak beste aseguru, finantza edo zerbitzu enpresaren baten.

Lanpostu honetarako **zera eskaintzen dugu**: gure taldean berehala lanean hasteko aukera, lan kontratua eta soldata finkoa gehi beste zati aldakor bat lortzen diren helburuen araberakoa. Gainera, promozio profesionalerako aukera zabalak lortzen diren emaitzen arabera.

Interesatuok bidali curriculuma eta argazki bat postaz edo e-postaz –eta oso garbi adierazi ze lanpostutara aurkeztu nahi duzuen– honako helbidera: Lagun Aro Aseguruak, Giza Baliabideak, Capuchinos de Basurto 6 – 2a. 48013 Bilbo, e-posta: rrhh@seguroslagunaro.es

www.seguroslagunaro.com

**Goienkaria** ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
**Aretxabaleta** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 21.500 ale.
**HARPIDETZA:** **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2003ko ekainaren 13a

*Atzeskua*

MAIDER OSA

# Aitziber Azkondo/'Ikusgela' saioko erreportaria

**Parrandak dezente gustatzen ei zaizkizu. Pasatu zaizu Mendekoste jaietako biharamuna?**

Pasatzen ari zait, errekuperatzeko pare bat egun behar izaten ditut-eta.

**Egutegian seinalatuta izango duzun beste parranda egun bat, hilaren 22koa.**

Zergatik esaten didazu hori?

**Liga bukatzen delako, eta Realak irabaz dezakeelako.**

Bai. Liga bukatzen delako eta Realzale amorratua naizelako, mutilaren eguna delako… Arrazoi ugari daude, eta pentsatzen ari gara Donostiara joatea.

**Balkoian ere izango duzu Realeko bandera.**

Bai. Atzo ekarri nuen, eta jartzeko daukat.

**Dena dela, pena izango duzu Bittor Alkiza Athleticen ibili delako jokatzen. Futbolean jokatzen hain ona da Bittor ala beste zerbait du?**

Ona zen, baina orain motelduta dagoela uste dut.

**Aspaldian, ETBko *Ikusgela* saioan ikusten zaitugu.**

Bigarren denboraldia dut aurtengoa.

**Badirudi kirol arriskutsuak gustuko dituzula…**

Bai, eta aukera izan dut hainbat erreportaje egiteko kirol horien gainean. Tirolina probatu nuen, zubi-jauzia egitera ez nintzen ausartu... Surfa ere probatu dut.

**Zer du *Ikusgela*-k hainbeste urtean ETBko saio finko izateko?**

Gazteei zuzendutako saio bakarra da, 16 urtetik aurrerako gazteendako saioa. Gazteekin Internet bidez harremana izaten dugu, eta saioan parte hartzen dute. Euren gustuko gaiak lantzen ditugu, eta horrek erakargarri bihurtzen du saioa: sexua, solidarioen tartea, erreportajeak… egiten ditugu.

**Zein alde on eta zein txar ikusten dizkiozu zure kazetari lanari?**

Niri betidanik asko gustatu izan zait kazetari lana; bai irratia, bai prentsa, baita telebista ere. Gauza asko ikasten dira. Alde txarra, berriz, jarraikortasun handirik ez duen lana dela. Nekeza da egonkortasuna lortzea. Telebistako saioak, esate baterako, audientzien mende daude.

**Musikazalea ere bazara. Aritzeta abesbatzan ikasitako abestiak gogoan dituzu?**

Batzuk bai. Oso gustura ibili nintzen. Bidaia ugari egiten genituen, baina denborarik ezagatik aspaldi utzi nuen.

**UNICEF erakundearekin Venezuelan lanean ibilitakoa zara.**

UNICEFek Caracasen duen bulegora joan nintzen, eta Komunikazio Departamentuan jardun nuen lanean, UNICEFen lana hedabideetan zabaltzen.

**Dena dela, bakarrik joan eta lagunarekin etorri. Ez zara makala!**

Hori esan didate, urrun joan nintzela mutil bila, baina sekula ez da jakiten! Bergara ere gustatu zaio, eta hemen bizi gara. Venezuelan, egoera oso beltz dago.



**"*Ikusgela* gazteei zuzendutako saio bakarra da ETBn"**

**"Kazetari jardunean gauza asko ikasten dira, baina oso nekeza da egonkortasuna lortzea"**

**"Venezuelan, egoera oso beltz dago"**

▶ *Bergararra / 30 urte / ETBko kazetaria*

## PIPERRAUTSA

### *Ozpina*

Popularrek eta sozialistek adostu zuten Madrilen alderdi politikoen legea. Eta hau baliatu dute Batasuna legez kanpo jartzeko, baita herri plataforma ugari jokoz kanpo uzteko. Hasieran paper hutsa zen, baina gero epaileak sartu dira eta geroago polizia. Azkenean, haien erasoak eragin ditu zauriak gorputz sozialean.

Zauria da, eta larria, milaka boto asko eta ehunka ordezkari kanporatu nahi izatea erakundeetatik. Zauria da, ondo sakona, horien ordezkaritza beste batzuei egokitzea. Eta zauria da, ez makalena, egoera honi aurre egiteko plantan elkarri zauriak ozpintzen jardutea.

Asteburu honetan eratuko dira Udalak, eta orduan bistaratuko dira zauri guztiak. Seguruenik, bakoitzak berea bakarrik ikusiko du, eta salatuko ditu inoren atzaparkadak. Kasik asma daitezke batzuen eta besteen hitzak. Kinielatan dabil jendea, gertatuko denaz, baina istiluak espero dira, oro har.

Nik, optimista zoro honek, nahi nuke pentsatu hitz egin dela, ateak ireki direla eta lankidetzarako bideak zirriborratu. Nahi nuke pentsatu inteligentzia apur bat egon dela, lehentasunak ondo bereizteko. Nahi nuke pentsatu ez ditugula Madrilgo legearen ondorio txarrak geuk areagotuko eta, asteburuan zer gerta ere, zubiak ez direla dinamitatuko.

Espero dut –espero nahi dut– otsoak eragindako zauriak ukendu goxatuko ditugula. Ez elkarri ozpina botata.

MIKEL IRIZAR

